sentimos con el fin de que el problema desaparezca. Sin embargo, se ha demostrado que evadirnos de lo que sentimos no sólo no soluciona el problema sino que perjudica en mayor medida a la resolución del mismo. Las emociones no son ni buenas ni malas, son información sobre nosotros mismos y nuestro estado anímico. Lo más efectivo en este caso es reconocer esa información y utilizarla para solucionar el problema.

- Convertir en una costumbre el hecho de prestar atención a las señales emocionales, para describir lo que sentimos de la forma más exacta posible. Es decir, tomar conciencia de estar a alerta cuando detectamos ciertos cambios o ciertas señales. Estas señales pueden ser tanto síntomas físicos como psicológicos, por ejemplo, exceso de sudoración, aumento de pulsaciones, dolores de cabeza, falta de concentración o irritabilidad.
- Averiguar cuál es el desencadenante de las señales emocionales. La mayoría de veces el hecho que provoca esas señales suele darse antes de que aparezcan: un niño que le roba un juguete a otro, frustración al no conseguir realizar una tarea o felicidad por ir a una excursión que llevaba esperando mucho tiempo.

Trabajando todos estos aspectos desarrollaremos una actitud reflexiva sobre nuestros sentimientos. Si llegamos a comprender los motivos por los que sentimos algo determinado y la influencia que ejerce sobre nosotros, estaremos caminando en dirección hacia la decisión correcta (Martin y Boeck, 2000).

2.2.4.2 Manejar las propias emociones

Aunque estas emociones no se puedan evitar, se pueden manejar para reconducir nuestra forma de actuar. El modo en el que manejamos los comportamientos innatos o los sentimientos básicos está en nuestras manos, decidiendo en base a nuestro criterio y nuestros motivos. La capacidad para manejar las emociones de forma inteligente depende de la inteligencia emocional. Hay varias estrategias que podemos utilizar para dirigir nuestras emociones:

- Apaciguamiento: se trata de reaccionar de manera racional ante emociones como la ira, frustración o miedo, actuando de forma práctica para no dejarnos dominar por nuestros impulsos. En este caso intentaríamos apaciguarnos,

calmarnos tomándonos una pausa breve, interrumpiendo lo que estamos haciendo. Una vez conseguimos calmarnos retomamos lo que estábamos haciendo e intentamos continuar con normalidad, no reprimiendo lo que sentimos, sino evitando que afecte a la tarea que estamos realizando.

- **Modificación de la situación:** se trata de canalizar lo que sentimos hacia algo productivo, sacándole una parte positiva y mejorando la situación actual. Por ejemplo, imaginemos que tenemos un alumno en clase al que le cuesta admitir sus errores o darse por vencido. En este caso, podemos ayudar al niño/a a canalizar esos sentimientos para inculcarle ser perseverante con los trabajos. Aprovechando que ese/a niño/a no se da por vencido fácilmente, conseguiríamos un niño constante que conseguiría sus cometidos gracias a su perseverancia.

Además de estas estrategias podemos utilizar algunas de las que hemos nombrado anteriormente. Por ejemplo, la autodeterminación, la desensibilización utilizada a corto plazo o la distracción, son formas muy efectivas de regular y/o canalizar nuestras emociones (Martin y Boeck, 2000).

2.2.4.3 Sacar partido de nuestro potencial

Para conseguir buenos resultados, tanto académicos como en la vida personal, no basta con tener un elevado CI o saber manejar nuestras emociones, sino que se necesitan más cualidades. Para conseguir un alto rendimiento es muy importante desarrollar la capacidad de generar de forma consciente emociones en nosotros mismos, por ejemplo, fuerza de voluntad, motivación, la perseverancia, la motivación, disfrutar mientras realizamos esa actividad y saber sobreponerse a la frustración. A continuación explicaré cómo podemos generar diversas emociones para aumentar el rendimiento y sacar partido del potencial de nuestros alumnos/as:

- **Control del impulso:** la capacidad de controlar nuestros impulsos es imprescindible para desarrollar nuestros talentos innatos y nuestro potencial. La fuerza de voluntad y la capacidad de sacrificarse para conseguir un objetivo mejor ayudan a dominar los impulsos. Las personas que demuestran fuerza de voluntad y capacidad de esperar para conseguir una gratificación mayor son

también capaces de actuar ante contratiempos, más seguros de sí mismos y rinden mejor en la escuela. En contra, las personas que no dominan sus impulsos o tienen menos fuerza de voluntad son en general más inseguros, indecisos y en consecuencia, desarrollan menos su potencial. Por lo tanto, es muy efectivo enseñar a nuestros alumnos/as estrategias para aumentar la fuerza de voluntad y aprender a esperar.

- Optimismo: las personas que tienen un punto de vista optimista a menudo obtienen resultados por encima de sus capacidades objetivas. En contra, las personas que piensan de forma negativa, obtienen resultados por debajo de sus capacidades reales. Por eso, es muy importante incentivar pensar de forma positiva, trabajando hábitos para evitar los pensamientos negativos. ¿Cómo podemos trabajar para evitar pensar de forma negativa? Es necesario cambiar las atribuciones personales y generalizaciones como *“¿Por qué me pasa todo a mí?”*, o *“Nunca hablan conmigo”* por pensamientos alternativos como *“Es la primera vez que tengo un accidente desde compré el coche”* o *“No hablan conmigo porque últimamente estoy un poco huraño/a”*.
- Constancia y motivación: hay momentos en los que nos abstraemos completamente en una tarea y la llevamos a cabo sin apenas esfuerzo. Cuando esto ocurre nos produce felicidad, el cerebro segrega adrenalina y dopamina y la euforia que se produce crea adicción, queriendo repetir la experiencia con más frecuencia. Estas fases álgidas ocurren cuando trabajamos utilizando al máximo nuestra capacidad de rendimiento. Existen estrategias para alcanzar el punto óptimo de rendimiento, que requieren compromiso e identificación con el desafío que queremos afrontar, constancia y motivación para lograrlo. Gracias a la constancia y la motivación aumenta el nivel de concentración y con ello la posibilidad de rendir al máximo de nuestras capacidades, sacando partido de todo el potencial que tenemos.

En resumen, generar emociones como la motivación y pensamientos positivos aumenta nuestro rendimiento, nuestra inteligencia emocional y en definitiva el nivel de plenitud (Martin y Boeck, 2000).

2.2.4.4 Ponerse en el lugar de otras personas

Tan importante como entender lo que sentimos es admitir las emociones de los demás y escuchar de forma activa para comprender pensamientos o sentimientos que no se han expresado verbalmente, además del mensaje que la persona transmite.

- **Empatía:** capacidad de escuchar a otra persona y entender el mensaje y la información no verbal que transmite mediante gestos, su tono de voz y la postura del cuerpo. Tener empatía también supone entender el mensaje emocional que transmite la otra persona, es decir, comprender las implicaciones emocionales de esa persona. Si nos ponemos en el lugar de la otra persona e identificamos su estado anímico, podemos inferir qué respuesta emocional necesita por nuestra parte para ayudarle de forma efectiva. Así pues, la empatía implica desarrollar capacidades como reaccionar con sensibilidad o la compasión hacia los demás. Cada persona tiene un nivel de empatía diferente, pero se puede trabajar para mejorarla.
- **Admitir y manifestar emociones:** saber ponerse en el lugar del otro presupone que conocemos nuestras emociones y no las reprimimos. La persona que ignora sus emociones no podrá percibir las señales emocionales de otras personas. Por eso, la empatía implica establecer relaciones auténticas, libres de toda apariencia. Cuando se establece una relación auténtica, las dos partes son capaces de manifestar sus emociones y admitir las de la otra persona. Teniendo en cuenta estos factores, desde la escuela promoveremos establecer relaciones auténticas entre profesor-alumno y alumno-alumno.
- **Escucha activa:** se trata de un método de escucha que garantiza una comunicación eficaz, en la que el sujeto se sitúa en el mundo emocional del interlocutor, comprendiendo sus emociones y ofreciéndole apoyo o alternativas. Mediante la escucha activa damos señales de que estamos escuchando a la otra persona, participando de forma activa o mediante gestos. También conseguimos darle sentido al mensaje, fijándonos no solo en lo que la persona dice sino también en su tono de voz, postura del cuerpo, gestos etc.

Resumiendo lo explicado en este apartado, mediante capacidades como la empatía y la escucha activa estableceremos relaciones auténticas en las que las dos partes comprenderemos las emociones de la otra persona y compartiremos la nuestra (Martin y Boeck, 2000; Trebol, 2014).

2.2.4.5 Crear relaciones sociales

La empatía es la raíz de la interacción con otras personas. Cuando interaccionamos con otras personas entran en juego las competencias sociales. Para conseguir un trato satisfactorio con otras personas es imprescindible controlar las reglas sociales, reconocer conflictos y solucionarlos, encontrar el tono adecuado para dirigirse a otras personas, percibir estados de ánimo del interlocutor, saber motivar a otras personas, creando así relaciones sociales efectivas. Estas capacidades pueden aprenderse, desarrollarse progresivamente. La atención es básica para conseguir gestionar las emociones y el trato consciente con las otras personas. A continuación explicaré brevemente una serie de estrategias que ayudan a establecer relaciones sociales:

- Establecer una comunicación efectiva: conseguirlo depende de varios factores y reglas sociales que debemos tener en cuenta, por ejemplo, encontrar el momento adecuado para hablar con la otra persona, transmitir nuestro mensaje de forma clara, hacer comentarios adecuados y en el momento oportuno, respetar diferentes opiniones, estar atento/a a las señales corporales de la otra persona, dosificar nuestras propias emociones y sincronizarlas con nuestro interlocutor.
 - Lenguaje corporal: el tono de voz, los gestos y la posición del cuerpo o los movimientos que hacemos son a menudo describen el clima de la conversación, y tenemos que ser capaces tanto de atender a las señales de la otra persona como de concentrarnos en controlar nuestro lenguaje corporal para que lo que decimos y lo que hacemos sean coherentes entre sí.
 - Dosificar nuestras emociones: cuanto mayor es nuestra competencia social, mejor se adaptan nuestras emociones a las reglas de expresión de un contexto determinado. Depende del contexto, manifestaremos

nuestras emociones de forma distinta para conseguir una comunicación efectiva y aceptada socialmente, minimizando, aumentando o compensando nuestras emociones.

- Expresar nuestras emociones: las emociones son contagiosas, por eso, las personas muy expresivas o carismáticas sintonizan de forma más efectiva con los demás. Por eso, cuanto más manifestamos el estado de ánimo mediante nuestro mensaje, la mímica y los gestos, más probable será que nuestras emociones se contagien al resto y sintonicemos con ellos. Cuando conseguimos sintonizar con los demás sincronizamos nuestras emociones, creando relaciones sociales auténticas
- Cuidar las relaciones para mantenerlas: requiere un intercambio de prestaciones, ofrecer ayuda a nuestras amistades cuando la necesitan y estar atento/a a las emociones de la otra persona. Sin embargo, el esfuerzo se ve recompensado con relaciones auténticas, que en un momento determinado pueden ser de mucha ayuda para conseguir ayuda, un trabajo, apoyo emocional o disfrutar con la compañía de esas personas (Martin y Boeck, 2000; Esarte, 2014).

Una vez explicado qué es y cómo funciona la inteligencia emocional, no cabe duda de que es muy importante trabajarla en la escuela, tanto como profesores/as como con nuestros alumnos/as. Mejorar la inteligencia emocional es beneficioso para todos los alumnos, pero especialmente provechoso para los niños con problemas de conducta. Así pues, en mi propuesta de intervención integraré, entre otras, las estrategias expuestas sobre inteligencia emocional.

2.3 Jokabide arazoen sailkapena

Kontuan hartuta DSM-IVan eta CIE-10ean egindako sailkapenak, mundu mailan eskola-aldian eragiten duten nahaste orokorren zerrenda egiteko erabiltzen diren sailkapenak, hauek dira esku-hartze proposamena egitean landuko ditudan jokabide arazo motak:

2.3.1 Arreta faltagatik nahastea eta jokabide nahasteak

Atal honetan bi jokabide nahaste nagusi zehaztuko dira, Arreta faltagatik nahastea eta jokabide nahasteak. Bestetik, jokabide arazo horien barnean dauden beste nahaste batzuk ere azalduko dira, hots, AFN-H mota ezberdinak, jokabide disoziala, jokabide desafiantea eta jokabide negatibista.

2.3.1.1 Arreta faltagatik nahastea (AFN-H)

Definizioa

Hurtzaroen hasten den nahastea da. Sintoma anitzekoa da, baina batez ere hiru funtsezko sintoma nabarmentzen dira: arreta falta, hiperaktibitatea edo gehiegizko mugimendua eta inpulsibitatea. Sintoma batzuk haurrak 7 urte arte bete baino lehen agertu behar izan dute, baina oro har diagnostiko kliniko eta ebaluazio psikopedagogikoa adin horretatik aurrera egingo da. Arreta Faltagatik Nahastea duten haurrek kontrol exekutiboko mekanismoetan disfuntzioa izaten dute, hau da, egiten dituzten ekintzen kontrol falta.

Aipatutako ezaugarriek eragina izango dute haurren funtzionamendu akademikoan, pertsonalean eta sozialean, izan ere, askotan alde handia sortzen da egiazko ahalmenaren eta ikasle mota hauen errendimendu akademikoaren artean, hau da, dakitena baino gutxiago erakusten dute. Bestetik, haur horiek oso zehaztuta dituzte euren zaletasunak eta irudimen handia izan ohi dute. Hiru AFN-H mota nagusi bereizten dira:

- AFN-H arreta gabea: arreta-faltaren sintomak nagusitzen badira.
- AFN-H hiperaktibo-inpulsiboa; hiperaktibitatea eta inpulsibitate sintomak nagusitzen direnean.
- AFN-H konbinatua: arreta-faltaren 6 adierazle edo gehiago eta hiperaktibitate eta inpulsibitate sei adierazle edo gehiago nagusitzen direnean (Iza, 2013).

Zein adierazleak edo sintomak azaltzen dira Haur Hezkuntzan?

DSM-IV sailkapen sisteman aipatutako AFN-H mota ezberdinak diagnostikatzeko sintomen zerrenda bat zehazten da, eranskinetan aurkituko duguna (Ikusi I. Eranskina). Sintomak behatu ondoren, diagnostikoa betetzeko hainbat irizpide bete behar dira. Batik bat, sintomak 6 hilabetez eman behar dira eta bi testuinguruetan antzeman behar dira, adibidez, eskolan eta etxean. Jarraiki, sintoma horiek eguneroko bizitzaren funtzionamenduan eragiten dute eta horien bidez beste nahasmendu batzuk deuseztatzen dira. Irizpide hauek betetzen direnean ebaluazio psikopedagogikoa eta diagnostiko klinikoa egingo dira eta horrekin batera eskolan esku-hartzea egingo da (Iza, 2013).

Esku-hartze orokorra Haur Hezkuntzan

Haur Hezkuntzan eranskinetan azaldu ditudan zenbait sintoma agertuko dira, beraz irakaslearen lana sintomak detektatzea, esku-hartze protokoloa jarraitzea eta aurrea hartzeko edo esku-hartze goiztiarra egiteko programak erabiltzea izango da. Programa horien helburua jokaerako sintomak hobetzea eta ikaskuntza estimulatzea izango da. Hainbat programa mota aurkituko ditugu: arreta hobetzeko programak, jokaeraren entrenamendu kognitiboa, programa metakognitiboak, autoerregulazio programak eta harremanetan trebatzeko programak.

Bestalde, AFN-H duten ikasleen %50ak noizbait jarrera arazoak izaten ditu. Horregatik, jokabide arazoak lantzeko teknikak erabiliko ditugu, zehazki, jokabide bat murrizteko/areagotzeko teknikak eta adimen emozionala lantzen dituzten teknikak, arrazoizko planteamenduan zehaztu direlarik- ikusi 2. Taula- (Rigau-Ratera, García-Nonell eta Artigas-Pallarés, 2006).

AFN-H duten haurrek ikasteko aparteko zailtasunak dituzte, horregatik arruntaz bestelako hezkuntza arreta behar dute. Haur hezkuntzako etapan hezkuntza neurri arruntak ⁷hartuko dira esku-hartzean egitean. Hortaz, ez dira curriculumeko oinarrizko atalak eraldatuko baina gelako antolamendua eta metodologia aberastuko ditugu eta hezkuntza indartze neurria hartuko dugu.

⁷ Hezkuntza neurri arruntak: eskolan hartzen diren hezkuntza neurriak, zeinetan curriculumeko nahitaezko elementuak aldarazten ez diren. Curriculumeko nahitaezko elementuak helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak dira (Iza, 2013).

Bukatzeko, eskolaldi prozesuan ematen den eboluzioa kontrolatzea oso garrantzitsua da. Horretarako, ikaslearen ikaskuntza prozesuaren jarraipena egingo dugu Hezkuntza Laguntza Unitatearekin batera, gelan erabilitako plangintza erregistratuz, helburuen lorpena kontuan hartuz, aurrerapausoak aztertuz eta hobetzeko esparruak ebaluatuz (Iza, 2013; Esarte, 2014).

2.3.1.2 Nahaste disoziala

Definizioa

Nahaste disoziala patroia errepikakorra jarraitzen duen jokabide arazo bat da, zeinaren bidez pertsona batek arau sozialak apurtzen eta bere inguruko pertsonen oinarritzko eskubideak zapaltzen dituen. Pertsona horiek jokabide agresiboa erakusten dute, eskolan baita familia giroan ere, ez dute helduek eskatzen diena errespetatzen, gurasoek esaten dutena kolokan jartzen dute eta irakasleek eskatzen dutena ez dute betetzen. Jokabide arazo hau nerabezaroan aurkezten da batez ere, baina haur hezkuntzako etapan zenbait adierazle antzeman daitezke eta sintoma horiek landu beharko dira (Esarte, 2013; Trebol, 2010).

Jarraiki, jokabide disoziala duten hurrek hainbat ezaugarri psikologiko aurkezten dituzte: enpatia gutxi dute, besteen ongizateaz ez dira kezkatzen edota haien sentimenduak edo interesak antzemateko gaitasun eta gutxi dute eta bere erara interpretatzen dituzte (pentsatuz, adibidez, pertsona hori bere kontra jokutzen ari dela). Horrez gain, erru sentimendurik ez dute aurkezten, ez dituzte akats propioak onartzen, autoestimua altuegia edo baxuegia izan ohi dute, ezegonkortasun emozionala eta frustrazioari aurre egiteko gaitasun gutxi. Hortaz, jokabide disoziala duten hurrekin emozioak garatzeko estrategiak eta autoestimua hobetzeko garatzeko estrategiak lantzea oso eraginkorra izango da.

Zein sintomak azalduko dira Haur Hezkuntzan?

Haur Hezkuntzan egunero gatazkak izango ditugu, haur guztiak noizbehinka gatazka batean murgilduko dira. Ordea, badaude jokabide arazo bat egon daitekeela

erakusten duten zenbait adierazle. Zehazki, hauek dira jokabide disoziala antzemateko adierazleak:

- Kasketa gogorrek adina kontuan hartuta eta ohikoa den baina maiztasun altuagorekin.
- Helduekin eztabaida ugari, heldua desafiatzen dute.
- Probokazio, desafio eta desobedientzia larriak.
- Maiz haserrea erakusten dute, gorrototsu eta mendekari jokatzeko dute.
- Errazago sumintzen dira, gezurtiak dira.
- Bere jokabide desegokiaren errua beste pertsonetan jartzen dute.
- Liskar fisikoei askotan hasiera ematen diete eta bere kideak beldurtzen dituzte.
- Krudelak dira beste kideekin edo animaliekin.
- Besteen gauzak suntsitzen ditu edo gelako materiala lapurtzen du [eskuragarri (2014/05/10):<http://creena.educacion.navarra.es/equipos/conducta/pdfs/disocial.pdf>].

Esku-hartzea

Jokabide disoziala duten hurrekin jokabidea lantzeko teknikak erabiliko dira, jokabide baten agerpena murrizteko edo areagotzeko erabiliko direlarik (ikus 2. Taula). Ikasteko aparteko zailtasunak aurkezten badituzte, hezkuntza neurri arruntak hartuko dira. Hortaz, ez dira curriculumeko oinarritzko atalak eraldatuko baina gelako antolamendua eta metodologia aberastuko ditugu eta hezkuntza indartze neurriak hartuko ditugu.

Aurretik aipatu dugun bezala, eskolaldi prozesuan ematen den eboluzioa kontrolatzea oso garrantzitsua da, ikaslearen ikaskuntza prozesuaren jarraipena Hezkuntza Laguntza Unitatearekin batera egiten dugularik, aurretik aipatu ditugun pausoak jarraituz. Esku-hartze prozesuaren jarraipena egiteko erregistro taula bete behar dugu – ikusi IX. Eranskina-.

2.3.1.3 Nahaste desafiantea (oposizionista)

Definizioa

Eskolako protokoloa eta plangintzaren diseinua jokabide arazoetan esku-hartzeko

Nahaste desafiantea jokabide patroi errepikakorra jarraitzen duen jokabide arazo bat da, zeinean pertsona batek helduengana, irakasleak nahiz gurasoak, jarrera desafiante bat aurkezten duen, eskatzen zaionari kasurik egiten ez diolarik. Zerbait eskatzen zaionean pertsona hauen erantzuna negatiboa izan ohi da. Hurrek noizbehinka jarrera negatibista aurkeztea normala da, baina maiztasuna, intentsitatea eta iraupena ez ohikoak direnean larriagoa den zerbaiten aurrean gaudenaren seinale izango da.

Jokabide arazo mota honetan, baita trastorno disozialean ere, komorbilidatea ematen da, hau da, trastorno bat baino gehiago batera gertatzen dira. Ikerketek nerabezaroan AFN-H duten pertsonen 40-60%-a noizbait jokabide desafiantea izango dutela erakusten dute. Bestetik, haurtzaroan jokabide desafiantea izateak nerabezaroan jokabide nahaste bat jasateko probabilitatea handitzen du (Rigau-Ratera, García-Nonell eta Artigas-Pallarés, 2006).

Jokabide desafiantearen diagnostikoari dagokionez, sintomak 2 urtetik aurrera agertzen dira. Diagnostikoa aurrera eramateko, sintomak gutxienez 6 hilabetez agertu behar dira eta bere adinerako normala den baina maiztasun eta intentsitate handiagoarekin azaldu. Bestetik, jokabide arazoak gutxienez bi testuinguruetan agertu behar dira eta beste trastorno batzuk deuseztatzen dira, adibidez, trastorno disoziala edo AFN-H (Esarte, 2014; Iza, 2013).

Sintomak

- Askotan haserretzen da eta kasketak izaten dituzte.
- Helduekin maiz eztabaidatzen dute.
- Askotan helduek esaten dutena desafiatzen du eta beraiek ematen dituzten aginduak ez ditu betetzen. Gero eta zorrotzagoak izan eta agindu gehiago eman, orduan eta emaitza txarragoak lortuko ditugu haur horiekin, kontrakoa egiteko joera izan ohi baitute.
- Beste pertsoneri traba ugari jartzen dizkiete.
- Besteengan jartzen dute beraien erruen erantzukizuna.
- Oso azkar minduta sentitzen dira, sarritan sumintzen dira, nahiz eta askotan gatazka beraiek sortu, kideek bere erantzun bat ematean minduta sentitzen dira edo frustratzen dira eta erantzun agresiboagoa emango dute.

- Askotan gorrototsuak eta mendekariak dira.
- Askotan gezurrak edo aitzakiak esaten dituzte interesatzen zaizkien helburuak edo sariak lortzeko.
- Eskolako materialaren erabilera ezegokia egiten dute (Esarte, 2013);
[Eskuragarri
(2014/05/2010):<http://creena.educacion.navarra.es/equipos/conducta/pdfs/negativista.pdf>].

Esku-hartzea

Jokabide desafiantean esku-hartzeko jokabidea aldatzeko teknikak aplikatzen dituen plangintza egingo da. Plangintza horretan ikaslearen hainbat testuinguru hartuko dira kontuan, familia, lagunak, eskola eta bere irudi pertsonala. Hezkuntza neurri arruntak hartuko dira eta ikaskuntza zailtasunak agertzen badira, larritasunaren arabera, neurri arruntak edo neurri bereziak hartuko dira. Horrez gain, esku-hartze prozesuaren jarraipena egingo dugu aurretik aipatutako erregistro taula betez – Ikusi IX. Eranskina-.

2.3.2 Nahaste emozionalak

Atal honetan Haur Hezkuntzan gehien gertatzen diren nahaste emozionalak laburki azalduko ditut. Esan beharra dago nahaste emozionalaren eraginez jokabide arazoak suertatu daitezkeela, haurrengan jarrera negatiboa izatea edota jokabide desegokia izatea eragin dezaketelako, horregatik sailkapenean integratu ditut.

Bi mota nagusietan bereizi ditut, hain zuzen ere, larritasun nahastea eta depresioa haurtzaroan.

2.3.2.1 Larritasun nahastea

Definizioa

Antsietatea edo larritasuna sentitzea egokitze mekanismo bat da, zenbait egoerei aurre egiteko modu bat. Larritasuna, ordea, patologikoa bihur daiteke hainbat baldintza gertatzen direnean: antsietatea sentitzen dugun maiztasuna, intentsitatea eta iraupena ez ohikoak direnean, egoerari ematen diogun erantzuna ez denean

Eskolako protokoloa eta plangintzaren diseinua jokabide arazoetan esku-hartzeko

proporzionala egoerak eskatzen duenarekin eta eguneroko bizitzako ekintzetan eragiten duenean. Larritasuna egokitze prozesuaren barne hartzen denean positiboa da, ordea, patologikoa bilakatzen denean eragin negatiboa izango du guregan. Larritasuna maila fisiologikoan, kognitiboan eta konduktuanean ager daiteke. Ahulezi biologikoa eta ikaskuntza prozesua oso faktore garrantzitsuak dira antsietatearen agerpenean. Larritasuna sor dezaketen gertaera edo larritasun mota ezberdinak aurki ditzakegu: banaketagatik sortutako larritasuna, beldurrak edo fobiak, TOC, mutismo selektiboa, estresa eta abar. Haurtzaroan larritasun nahasteak izatea helduaroan antsietatea eta depresioa izateko probabilitatea handitzen du (Esarte, 2014).

Sintomak edo adierazleak:

- Gauzak (errotulagailuak, maukak) ahoan sartzeko joera izatea.
- Marraztean trazu bat askotan errepikatzea.
- Ekintza bat egitean arreta mantentzeko zailtasunak izatea.
- Gehiegizko kezka aurkeztea gai baten inguruan: bakarrik egoteko kezka edo gurasoek mina hartzeko kezka.
- Maila psikofisiologikoan: gehiegizko aktibazio psikofisiologikoa erakusten da eta horrek hainbat arazo sortzen ditu: buruko edo sabeleko minak, zorabioak, lo alterazioak, deseroso sentitzea eskolan edo ez ohiko hautemate esperientzia izan, adibidez, munstroak ikusi.
- Ezezkoa adierazten dute eskolara etortzeari.
- Gurasoengandik banatzean kasketak hartzen dituzte edo negarrez hasten dira.
- Porrotari gehiegizko garrantzia ematen diote.
- Beldur soziala dauka, denon artean akats bat egitera edo hitz egiteko beldurra, adibidez.
- Urduritasun handia aurkezten dute ekintza zehatz bat egin baino lehen, adibidez, komunera joan edo makinista izatea.
- Gutxiegi edo gehiegi jaten dute, hortaz, pisu aldaketak antzematen dira (Esarte, 2014; Trebol, 2014).

Esku-hartzea

Haurrek larritasuna erakusten dutenean edo sintomak detektatzen ditugunean kausa edo *jatorria* aurkitu behar dugu. Horretarako behaketa egingo dugu, ondoren haurrari galderak egingo dizkiogu, orientatzailea jakinaren gainean jarriko dugu, beharrezkoa balitz bere laguntza eskatuz eta gurasoekin hitz egingo dugu. Behin larritasuna izateko arrazoa ezagututa, sintomak landuko ditugu eta larritasuna sortzen duen egoerara hurbilpen progresiboa egingo dugu. Larritasunaren ondorioz ikaskuntza arazoak sortu badira hezkuntza neurri arruntak hartuko dira, adibidez, hezkuntza indartzea (Esarte, 2014; Iza, 2013).

2.3.2.2 Depresioa haurtzaroan

Definizioa

Tristezia oinarrizko giza emozioa da, poza edo haserrea bezala. Erreakzio emozional normala da eta egokitze prozesuaren atal bat da. Arazoa tristezia hori gehiegizkoa denean sortzen da, denbora-tarte luze batez mantentzen denean. Depresioa hainbat gertaeren aurrean ager daiteke: gurasoen banaketa, gertuko pertsona baten heriotza, lagun bat galtzea edo anai-arreba baten jaiotza, izan ere, anai-arreben jaiotza edozein pertsonaren garapen ebolutiboan epealdi kritiko bat da (Esarte, 2014).

Depresioaren sintomak

- Egoera animiko triste edo suminkorra izatea.
- Umea serioa egotea edo askotan haserretzea.
- Aktibitateen inguruan, lehen asko gustatzen zaion ekintza batean interesa galtzen du, ez du disfrutatzen.
- Ekintza ezberdinak egiteko gogoak edo motibazioa galdu du, aspertzen dela esaten du.
- Gutxiegi edo gehiegi jaten du, ondorioz, pisuan aldaketak jasan ditu.

- Lo-aldietan aldaketak izan ditu eta eskolara nekatuta etortzen da, edo amesgaiztoak dituela kontatzen du.
- Agitazio edo gutxitze psikomotorea: gehiegi mugitzen da, urduri dago, edo guztiz kontrakoa, erabat geldiak dago gelan, apatikoa edo inizatiba gutxirekin.
- Erru sentimenduak adierazten direnean, autoestimu baxuagoa izan ohi dute.
- Arazo guztien kausa bezala ikusten dute bere burua: adibidez, pentsatzen dute bere gurasoak bere erruagatik banatu direla.
- Errendimendu akademikoa baxuagoa da, arreta mantentzeko eta erabakiak hartzeko ezintasuna aurkezten du (Esarte, 2014; Trebol, 2014).

Esku-hartzea

Depresioa detektatzeko prozesuan behaketa ezinbesteko elementua izango da. Behaketaren bidez lehenengo sintomak detektatuko ditugu. Sintoma hauek gelan detektatzen ditugunean behatutakoari informazioa gehitzeko beste irakasleekin hitz egingo dugu eta patioan jokatzeko duen modua behatuko dugu. Orientatzailea behatutakoaz informatuko dugu aldiro. Ondoren, gurasoekin elkarrizketa egingo dugu, familia egoera ezagutzeko. Sintomak detektatu eta informazioa lortu ondoren, depresioa sufritzeko arrazoi posibleak identifikatuko ditugu.

Bestetik, umea denbora-tarte luze batez triste sentitzen dela detektatu bezain laster prebentzio lana egin behar dugu tristezia hori depresioan ez bilatzeko. Horretarako, umearen ingurunea aberastuko dugu, bere bizi baldintza orokorrak hobetuz. Umearentzat arriskutsuak diren egoerak detektatu behar ditugu eta haietan eragin. Bestetik, umearen konpetentzia pertsonalak hezi behar ditugu eta depresioaren aurkako erresistentzia indartu. Horretarako, autokontrol emozionala landuko dugu eta gizarte trebetasunetan baita arazoaren ebazpenetan ere lagunduko dugu haurra.

Depresioaren ondorioz ikaskuntza arazoak suertatzen badira hezkuntza neurri arruntak hartuko dira, adibidez, hezkuntza indartzea. (Esarte, 2014; Iza, 2013).

2.4 Esku-hartze ikuskerak

Eskolan aurki ditzakegun jarrera arazoak azaldu ondoren, zailtasun horiek lantzeko kontuan har daitezkeen esku-hartze ikuskerak azalduko ditut. Esku-hartze plangintza egiterako orduan, hainbat oinarrizko eredu aurkitzen ditugu, adibidez eredu humanista, psikoanalisia, konduktismoa, kognitibismoa, konstruktibismoa eta eredu sistemikoa. Nire proposamena egiteko, hortaz, eredu horietan oinarritu naiz, hauek integratuz, bakoitzaren alde onak aukeratuz eta alde txarrak baztertuz, adimen emozionalaren teoriak eskaintzen digun informazioarekin batera esku-hartze plangintza bat egiteko. Horrela ba, lan horretan esanguratsuak eta beharrezkoak diren esku-hartze ikuskera edo ereduak jarraiki azalduko ditut.

2.4.1 Eredu konduktista

1950tik aurrera, hainbat psikologok jokabidea aldatzeko terapiak egiten hasi ziren eta konduktismoa sortu zen, psikoanaliaren lanak osatzeko asmoz. Denboraren poderioz, gero eta autore gehiagok terapia konduktuala lantzeko teoriak egin zituzten. Konduktismoko autore garrantzitsuak Watson eta Skinner, Bruner, Pavlov eta Aaron Beck dira. Bestetik, konduktimoari esker jokabidea aldatzeko hainbat teknika garatu ziren, adibidez, baldintzapen klasikoa, baldintzapen operantea, modelaketa eta autokontrollean oinarritutako teknikak.

Gaur egun autore horien ekarpenak hainbat hezkuntza metodoetan erabiltzen dira. Konduktismoaren ikuspegitik, ikaskuntza estimuluei lotuta ematen da, eta estimulu hauek jokabide baten agerpenean eragiten dute. Gure esperientzietatik ikasten dugu eta hauek gure jarrera eta izaera baldintzatzen dute. Gure jokabideak baldintzatzeko orduan, errefortzuak hartzen dute. Gure nortasunak ingurugiroan ez ditu aukera askeak sortzen, estimuluen bidez mugitzen baita. Errefortzu eta zigorren arabera jokutzen dugu eta hauek positiboak ala negatiboak izan daitezke (Trebol, 2014); [Eskuragarri (2014/05/04): <http://www.psicologia-online.com/ESMUBeda/Libros/ProfSanitarios/profesionales3d.htm>].

Konduktismoaren ikuspegitik, ume baten jokabidea aldatzeko prozedura orokorra hau da:

Eskolako protokoloa eta plangintzaren diseinua jokabide arazoetan esku-hartzeko

1. Jokabidea definitu
2. Jokabidearen maiztasuna zehaztu
3. Jokabidearen analisi funtzionala egin: zergatik jotzen du? Zer gertatu da jokabidea agertu aurretik?
4. Erabili beharreko prozedurak zehaztu
5. Pausoz-pauso egin beharrekoa azaldu
6. Gurasoei azaldu egin beharrekoa eta koordinazioa ezarri
7. Plana praktikan jarri
8. Planaren emaitzak ebaluatu
9. Plana aldatu emaitzak hobetzeko
10. Programaren amaitze graduala egin, pixkanaka lantzen utziz (Esarte, 2014).

Konduktismoan sortu ziren teoriiei esker, hezkuntza arloan erabilgarriak diren hainbat teknika sortu ziren. Jarraiki, jokabide baten agerpena eta jokabide bat murrizteko teknika nagusiak aipatuko ditut.

2.4.1.1 Jokabide bat areagotzeko teknikak

- Errefortzu positiboa: haur batek bere garapenerako esanguratsua den jokabide bat egiten duenean eta ekintza hau errepikatzea nahi dugunean hau positiboki indartuko dugu, berarentzat esanguratsua den errefortzu bat erabiliz. Hainbat errefortzu mota daude: soziala (afektiboa edo hitzezkoa), fisikoa eta materiala. Haurrak hasieratik ezagutu behar du zein den positiboki indartuko dugun jokabidea edo ekintza eta zer motatako errefortzua erabiliko dugun. Bestetik, errefortzu positiboa ekintza bukatu bezain laster emango dugu, adibidez, berokia zintzilikatu bezain laster. Helburuaren arabera, teknika hau taldeka nahiz indibidualki lan daiteke eta helburua lortu bezain laster errefortzua progresiboki ezabatuko dugu, maiztasuna edo iraupena gutxituz (Mendez eta Olivares, 2001).
- Moldeamendua: haurren eguneroko jokabideen artean ez dagoen jokabide baten agerpena sustatzeko teknika bat da, zeina errefortzu positiboa eta kitzikatzaileen bidez erabiltzen den. Horretarako lortu nahi den jokabidea edo helburua zehaztu behar da, abiapuntua edo hasierako jokabidea identifikatu, moldeaketan aurrera eramango diren pausuak zehaztu, baita errefortzu motak ere, eta pauso

bakoitzaren iraupena. Haurrak aldioro jakingo du zein den lortu nahi dugun helburua (Esarte, 2014).

- Teknika kitzikatzaile edo zirikatzailea: ekintza, erantzun edo jokabide baten agerpenean laguntzen duen teknika da eta erantzun hori gertatu baina lehen erabiltzen da. Kitzikatzaileak helburua lortzeko laguntza gisa kontsidera daitezke. Hainbat kitzikatzaile mota aurkitzen ditugu:
 - Hitzezko kitzikatzailea: jokabide bat agertzeko edo aurrera eramateko hitzezko argibideak eman. Adibidez: hau arkatza da, zer da hau?
 - Keinuzko kitzikatzailea: ikaslea ukitu gabe lagungarriak diren keinuak egin, adibidez, eskuekin zerbait seinalatu, begiratu edo ahoa ireki.
 - Inguruneke kitzikatzailea: ingurua egokitu jokabidearen agerpena sustatzeko, adibidez, jostailu konkretu bat erabiltzeko jostailu hori agerian utzi eta gainontzekoak gorde.
 - Kitzikatzaile fisikoa: laguntza fisikoa eman ekintza bat egiteko, adibidez, umea lagundu berokia zintzilikatzen (Esarte, 2014).
- Desegitea: jokabidearen agerpena lortu denean errefortzuen desagerpen progresiboa egitean datza, betiere jokabide hori mantenduko dela ziurtatuz. Horretarako, errefortzuen intentsitatea gutxitu dezakegu, errefortzuen erabileran denbora tartea luzatu edo laguntza fisikoa pixkanaka eskaintzen utzi. Oso garrantzitsua da teknikak erabiltzean errefortzuak progresiboki alde batera uztera, bestela errefortzuek eragina galduko dute, kontrako efektua lortuz (Esarte, 2014; Trebol, 2014).
- Kateatzea: orokorra edo konplexua den helburu edo jokabide baten segmentazioa egitean datza, helburu txikiagotan zatituz, prozesua errazteko eta lorpena ziurtatzeko. Segmentazioa pausu errazetik hasiko da progresiboki pauso konplexuagoetara igaroz (Esarte, 2014; Trebol, 2014)

2.4.1.2 Jokabide bat murrizteko teknikak

- Errefortzu negatiboa: haurrak bere garapenerako kaltegarria den ekintza bat egiten duenean eta ekintza hori murriztu nahi dugunean, negatiboki indartuko dugu, hitzez edo keinuz. Haurrak hasieratik ezagutu behar du zein den negatiboki

Eskolako protokoloa eta plangintzaren diseinua jokabide arazoetan esku-hartzeko

indartuko dugun jokabidea edo ekintza eta zer motatako errefortzua erabiliko dugun. Errefortzu negatiboa ekintza bukatu bezain laster eman behar dugu. Ekintza askotan errepikatzen bada, noizbehinka arreta kendu beharko dugu, gehiegi ez tematzeko, bestela kontrako efektua lortuko dugu. Jokabidea murriztea lortu dugunean errefortzua progresiboki ezabatuko dugu (Mendez eta Olivares, 2014).

- Desagertzea: haurrak jarrera ezegokia aurrera eramaten duenean irakasleak arreta guztiz kentzen dio, axolagabetasuna erakutsiz, errefortzurik erabili gabe, jarrera hori aurrera eramatera uzten dion arte. Horrela ba, teknika aplikatzen denean jarrera ez da modu positiboan indartu behar, ezta negatiboki ere. Haurra gelditzen denean, berriro ere arreta eskainiko zaio. Teknika hau gomendagarria da haurrak jokabide ezegoki bat maiztasun edo intentsitate gutxirekin egiten duenean eta irakaslearen arreta deitzeko egiten duenean (Esarte, 2014).
- Errefortzu diferentziala: errefortzu negatiboa eta positiboa konbinatzean datza. Haurrak desagokia den jokabide bat aurrera eramaten duenean negatiboki indartuko dugu. Jokabide horren agerpena nabarmenki gutxitzen denean edo ordezkoko jokabide bat agertzen denean, ordea, haurra positiboki indartuko dugu. Hau da, jokabide baten aurrean aldaketa txiki bat antzematen dugunean errefortzu positiboa erabiliko dugu, haurra motibatuzeko (Esarte, 2014; Trebol, 2014).
- Denbora kanpoan: teknika horren bidez, haurra egiten ari garen ekintzaz kanporatzen dugu neutroa den toki batera. Toki neutro horretan (argazki, zarata eta estimulurik gabekoa) haurrak ez du errefortzurik jasotzen eta ekintzatik kanpo dago, horrela gogoeta egitea bultzatuko dugu. Toki neutro hori gelan kokatu dezakegu, adibidez, “pentsatzeko txokoa” sortuz, edo pasabidean kokatu dezakegu, kontuan hartuz heldu baten presentzia beharko dela. Teknika hau aurrera eramane baino lehen haurra abisatuko dugu eta jarrera modu berbalean gutxitzen saiatuko gara. Haurrak gaizki jokatzen jarraitzen badu, ezer esan gabe ekintzatik aterako dugu, eskutik hartuta edo pensatzeko txokora joateko eskatuz. Minutu gutxi egongo da ekintzatik kanpo, 5-10 gehienez, adinaren arabera, ondoren ekintzara bueltatzeko esango diogu. Umea modu egokian portatzen bada baztertuta dagoen bitartean, posiblea da denbora murriztea (Esarte, 2014; Labrador, 2008).

- Gainzuzenketa: egokia ez den jokabide bat aurrera eramatean ondorio esanguratsuak ezartzean datza. Teknika hau jokabidea agertu bezain laster aplikatu behar da eraginkorra izateko. Ondorio mota ezberdinak ezarri ditzakegu, adibidez, haurrari ingurua lehen zegoen moduan uzteko eskatzea (jostailu bat botatzen duenean), gatazka konpondu irtenbide bat bilatuz. Haurrak egoera konpontzen duen bitartean ez du errefortzurik jasoko, ezta egindakoa konpondu ondoren ere, ulertu behar duelako arazoa konpontzea bere betebeharra denez gero ez duela onespenez jasoko. Helburua akatsez konturatzea, errua onartzea eta jokabide egokia agertzea izango da (Esarte, 2014; Trebol, 2014).
- Kontingentzia sistemak
 - Fitxen ekonomia: fitxetan oinarritutako errefortzu sistema indibiduala da. Teknika horren bidez, haurrak fitxa kopuru bat izango du bere eskura eta aurrera eramaten duen jokabidearen arabera fitxak galdu edo lortuko ditu. Astea bukatzean lortutako fitxen arabera sari bat lortuko du. Teknika hau bi fasetan aurrera eramaten da:
 - Ezartze fasea: sarituko dugun jokabidea definitu behar dugu, adibidez, jostailuak biltzea edo lagunak ez jotzea. Ondoren, hasieran izango dituen gomets kopurua zehaztu behar dugu, baita identifikatutako jokabidea aurrera eramatean denbora tarte zehatz batean (adibidez, astearen egun bakoitzean) lortuko dituen gomets kopurua ere. Informazio horrekin taula bat sortuko dugu eta gometsak itsatsiz joango gara. Sistemak erabiltzeko erraza izan behar du eta ez du denbora asko kendu behar. Etxean ere egindako taula erabiliko da. Bukatzeko, sari finala lortzeko beharrezkoak diren gometsak zehaztuko da. Lortzen baditu, astearen bukaeran saria jasoko du. Bestela, hurrengo astean adostutako gomets kopuruarekin berriro hasiko da.
 - Desagertze fasea: fitxak gradualki kenduko dira menpekotasuna ekiditeko. Horretarako, entregatzeko denbora tarte luza behar da, fitxak lortzeko irizpideak zailagoak bihurtu edo saria lortzeko fitxa kopurua handitu (Esarte, 2014).

- **Jokabide kontratua:** jokabide bat aldatzeko nahia duten pertsonen artean (gurasoak eta seme-alaba edo irakaslea eta ikaslea) ezartzen den idatzizko kontratua non bi aldeek arteko negoziazioa egiten den eta lortutako akordioa hitzez idazten den. Adostutako jokabideak behargarria eta neurgarria behar du izan, ebaluaketa objektiboa lortzeko (Esarte, 2014). Adibide bat II. Eranskinean ikusiko dugu.

2.4.2 *Eredu humanista*

Ikuspegi humanista 60ko hamarkadan sortu zen Estatu Batuetan eta eredu konduktuala eta psikoanaliari ordeztu moduan agertzen zaigu. 3 terapia nagusi nabarmentzen dira: terapia gestaltikoa, analisi transakzionala eta subjektua erdigunetzat hartzen duen psikoterapia. Autore nagusiak Maslow, Goodman, Rogers eta Eriksson dira.

Eredu humanistak hainbat ideia planteatzen ditu:

- Mundua hautemateko moduak jokabidean eragiten du.
- Pertsona orok zuzentze eta lorpen positiboetarako berezko ahalmena du. Bakoitzak potentzial ezberdina izango du eta guk izango gara gure potentziala garatuko dugunak, modu autonomoan, autoerrealizazioa lortuz eta oinarritzko gaitasunak garatuz. Autoerrealizazioa oinarritzko beharrak eta behar psikologikoak asetzen direnean lortzen da, ongizate fisiko eta emozionala bermatuz.
- Pertsona independentea da eta bere ekimenen ardura osoa du, beraz, guk haurra motibatu dezakegu baina bera izango da bere gaitasunak aktibatuko dituen.
- Beste pertsona ulertzeko ezinbestekoa da bere tokian jartzea, egoera bere ikuspegitik aztertuz.
- Esperientzia eta autokontzeptuaren arteko elkarreragina ezinbestekoa da ikaskuntza prozesuan. Gure esperientzia eta autokontzeptuaren artean inkongruentzia dagoenean, hau da, koherentzia eza, haurrak jokabide defentsiboa izango du eta ikaskuntza arazoak suertatuko dira (Trebol, 2014).

Aurretik esandakoa kontuan hartuz, eredu humanistatik abiatuta terapia edo esku-hartzea egiten dugunean subjektua izango da bere gaitasunak aktibatu edo

aurrera eramango dituen. Hortaz, gure eginkizuna haurra motibatzea eta prozesuan laguntzea izango da. Ideia hau esanguratsua denez gero arrazoizko planteamendua diseinatzean integratuko da.

2.4.3 Eredu sistemikoa

Eredu sistemikoa 50ko hamarkadatik aurrera sortzen da eta ideia nagusia tratamendu psikologikoan familiak parte-hartzea sustatzen dela da, subjektuaren jokabidea edo patologia hobetzeko helburuarekin. Hau da, subjektuaren arazoa ulertzeko bere ingurunea osotasunean ezagutu behar dela planteatzen da, eta horrekin batera familia egoera. Familia egoeran hainbat alderdiri emango diegu garrantzia: subjektua bizi den familia eredu, zein harreman mota duen kide bakoitzarekin, nola erlazionatzen diren haien artean, subjektuaren hierarkia familian eta familiako kide ezberdinen artean ematen diren interakzio motak.

Bestetik, subjektua bere inguruko pertsonekin nola erlazionatzen den eta nola komunikatzen den aztertuko dugu. Terapia sistemikoa familiekin, taldeekin, bikoteekin eta forma indibidualean ere aplika daiteke. Terapia sistemikoan, subjektuaren komunikazio eta erlazionatzeko gaitasunak aztertuko dira. Terapia taldean egiten bada, taldeko kideen komunikatzeko eta erlazionatzeko gaitasunak, interakzioak eta sortzen diren azpitaldeak aztertuko dira (Trebol, 2014); [Eskuragarri (2014/05/04): <http://www.psicologia-online.com/ESMUBeda/Libros/ProfSanitarios/profesionales3d.htm>].

2.4.4. Eredu kognitiboa

Psikologia kognitiboan ezagutza osatzen duten prozesu mentalak aztertzen dira. Prozesu mental horietan ematen diren oinarriko mekanismo eta mekanismo sakonak aztertzen dira, adibidez, hautematea, oroimena, ikasteko gaitasuna eta arrazonamendu logikoa. Eredu kognitiboaren ikuspegitik ezagutza hautematen dugun informazioa ulertu, antolatu, berreraiki eta berriro erabili ondoren sortzen da. Pertsonen ikaskuntza prozesua aztertzeko prozesu mentaletan zentratzea eta prozesu horietan eragitea ezinbestekoa izango da. Bestetik, hizkuntza barneratzeko prozesua Eskolako protokoloa eta plangintzaren diseinua jokabide arazoetan esku-hartzeko

nola gertatzen den aztertzen da. Eredu kognitiboa landu duten autore nagusiak Chomsky, Vygotski, Piaget eta Ausubel dira [Eskuragarri (2014/05/04): <http://www.psicologia-online.com/ESMUBeda/Libros/ProfSanitarios/profesionales3d.htm>].

2.5 Inklusioaren garrantzia eskolan

Inklusioa lantzen hasteko, hezkuntza inklusiboa zer den azaldu beharra dago. Hezkuntza inklusiboa eskolako kulturen, politiken, hots, erabaki estrategikoen eta jardueren azterketa sistematikoaren prozesua, eskola hobekuntza edo berrikuntza jarduera jarraituen bitartez eskolatuta dauden ikastetxeetako ikasleen presentzia, ikaskuntza eta parte-hartzea mugatzen dituzten mota desberdineko oztopoak deuseztatzeko edo txikiagotzean datza, arreta berezia jarriz egoera ahulago batean daudenei (Iza, 2013). Hezkuntza Inklusiboaren izaera esaldi batean labur daiteke: aztertu behar dugu zer egin dezakegun haur batek edo batzuek dituzten mugak ahalik eta gutxien muga diezaien.

Ikuspegi inklusiboa integrazioa baina haratago doa. Izan ere, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haurrak eskola arruntean integratzen direla esaten dugunean, haur horiek hezkuntza sistemara egokitzen dira, gelako metodologia, antolakuntza eta edukietara. Hezkuntza inklusiboak, ordea, sistema birplanteatzea eragiten du: eskolako metodologia, antolakuntza eta estrategiak egokitzen dira eskolako ikasle guztien beharrei erantzuna emateko. Gizartea anitza denez gero, eskolan aniztasuna ere aurkituko dugu eta hezkuntza sistemak aniztasun horri erantzuna emateko baliabideak eskaini behar ditu.

Horrela, eskola inklusiboan HPB dituen haurra eskolara joateaz gain, talde baten kide sentitzen da eta bere gaitasunen arabera ekarpenak egiten ditu, hots, gelako dinamikan parte hartzen du. Eskolan talde kohesioa landuz gero, gizarte kohesioa lortuko da. Ondorioz, eskola inklusiboari esker eskulio soziala ekiditen da (Echeita, 2007).

Jokabide arazoak dituzten haurren kasuan, talde sentimendua eta bere gelan talde kohesioa izatea bereziki konplexua nahiz beharrezkoa da. Izan ere, jokabide arazoak dituzten haurrek hainbat arrisku jasaten dituzte: arreta mantentzeko

zailtasunak, ikasteko zailtasunak, curriculumera iristeko arazoak, batzuetan eskola porrota ematen da, emaitza akademiko kaskarrak, beste pertsonekin erlazionatzeko arazoak eta sozializatzeko zailtasunak. Faktore hauek gertatzen direnean, pertsona horiek lanpostu duina ez lortzeko eta ondorioz gizartetik at gelditzeko arrisku gehiago dute.

Hortaz, eskolan haur guztiei babesa eman behar diegu, euren gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko. Ikasle guztiak hezkuntza sisteman ahalik eta denbora gehiegi mantentzea bermatu behar dugu. Beraien gaitasunekin bat doazen ikasketak lortuz gero, lanpostu finko bat lortzeko aukera gehiago izango ditu. Lanpostu finko edo egonkorra izanez gero, bizi kalitatea lortuko da eta horrela gizarteratzea eta duintasunez bizitzeko aukera izatea bermatzen da.

Bestetik, harreman sozialetan trebatu behar ditugu. Horretarako, harremanak ezartzeko estrategiak berarekin landu behar dugu baina baita taldearekin ere, talde kohesioa eta talde sentimendua sustatuz (Iza, 2013; Lopez, 2014). Lanaren 57-59 orrialdeetan talde kohesioa eta harremanak ezartzen trebatzeko estrategia eta proposamen ezberdinak azaltzen dira.

3. LANAREN GARAPENA: EGILEAREN ARRAZOIZKO PLANTEAMENDUA

Arestian jorratu dudan atal teorikoa arrazoizko plangintza aurrera eramateko ezinbesteko oinarria dela aurkitzen dugu. Izan ere, landu ditudan gaiak ekarpen esanguratsuak eskaintzen dituzte esku-hartze plangintzaren diseinuan. Horrela ba, atal honetan aurrera eramango dudan proposamenerako teoriaren atal nagusien ekarpenak zeintzuk diren laburki azalduko dut, ekarpen horiek elkartuko ditut eta esku-hartze plangintzaren diseinuan integratuko ditut nire proposamena aberasteko.

Hasteko, Howard Gardnerrek landu zuen adimen anitzen teoriaren inguruan esan beharra dago eskolan kontuan hartu behar dugula haur bakoitzak adimen ezberdinetan trebeagoa izango dela. Horregatik, trebetasun ezberdinak erabiliz ikasteko aukera eskaintzen duen hezkuntza praktika aurrera eraman behar dugu, baliabide material, metodologia, tresna eta denbora antolatzeko modu ezberdinak eskainiz. Ezaugarri horiek gure gelan integratuz eta malgutasunez jokatuz lortuko dugu mugimendua, musika, naturarekin kontaktua lantzea, logika, hizkuntza aberatsa, norbere burua ezagutzea eta harreman sozialak ezartzea konbinatzen dituzten ariketak proposatuz.

Jarraiki, adimen emozionalaren teoria kontuan hartuta jokatzeke modu bakoitzaren azpian beti oinarrizko emozioak aurkituko ditugula ondoriozta dezakegu. Adibidez, jokabide disoziala duen haur bat haserre sentitzea edota agresiboki jokatzea, antsietatea jasaten ari den haur batek gehiegizko kezka edota beldurra sentitzen ari da eta depresioa duen haur batek, ordez, tristezia sakona.

Bestetik, emozioek erabaki bat hartzeko prozesuan eragin positiboa izan dezakete, baita negatiboa ere. Adibidez, arrisku bat emozioen bidez identifikatzen dugunean, gogoratuz leku zehatz batera hurbiltzea emozio edo ondorio negatiboak bizi genituela, arriskua ekiditea erabakitzen dugunean emozioek eragin positiboa dute guregan. Ordea, emozio intentsuak bizitzean, haserrea, adibidez, erabaki onuragarri bat hartzeko prozesuan objetibotasuna galtzea gerta daiteke. Horrelako zerbait gertatzen denean, gure emozioek eragin negatiboa izan dutela esan genezake.

Pertsona bakoitzak bere emozioak modu ezberdinean bizitzen ditu eta estrategia anitzak erabiltzen ditu kudeatzeko. Irakasleak garen heinean, oso garrantzitsua izango da gure emozioak kudeatzeko estrategia eraginkorrak erabiltzea emozionalki ikasleengan eragin positiboa lortzeko eta eredu emozional sendoa, egonkorra eta koherentea erakusteko. Izan ere, guk transmititzen dugun irudia ikasleek imitatuko dute, adibidez, kontzienteki egiten duguna baita modu ez zuzenean transmititzen dugun informazioa ere, nola sentitzen garen edo haien ekintzen emaitzekiko ditugun itxaropenak.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, adimen emozionala hezkuntza prozesuan inplikaturik dauden pertsona guztiek landu behar dute. Irakasle bezala, gure emozioak kudeatzeko estrategia eraginkorrak garatzeko esfortzu bat egin behar dugu, baita haurren egoera emozionala ulertzeko eta errespetatzeko ere, haurren lekuan jarriz. Horrez gain, ikasleei beraien emozio propioen kudeaketa hobetzeko estrategiak eta harreman sozial eraginkorrak ezartzeko estrategiak garatzeko prozesuan lagundu behar diegu.

Haurrak adimen emozionalean trebatzeko, estrategiak aukeratu beharko ditugu. Estrategia horiek aukeratzeko orduan hainbat faktore kontuan hartu behar ditugu: jokabide arazo mota eta jokabide horren larritasuna eta maiztasuna, haurrak erakusten dituen emozio motak, adina eta ezaugarri pertsonalak. Beraz, adimen emozionala lantzeko estrategiak haurren ezaugarriak kontuan hartuta izanda erabiliko direnez gero, estrategia anitzak eta elkarren artean ezberdinak izango dira, ariketa, teknika, material eta metodologia ezberdinez baliatuz. Aipatutako guztia arazoizko planteamenduan azalduko da.

Adimen emozionala hobetzeko estrategiak guztiok landuz gero, haurrak eskolara gustura etortzea, hobeto ikastea, giro lasaia sortzea, haien autoestimua hobetzea, errendimendua hobetzea, sormena gehiago erabiltzea, diziplina arazoak murriztea eta harreman sozial aberatsen bidez talde kohesioa egotea lortuko dugu.

Daniel Golemanen ekarpenez hitz egiten bukatzeko, esan beharra dago adimen emozionala lantzeko beharra ez dela etorriko jokabide arazoak dituzten haurren eskutik, baizik eta pertsona guztien beharra dela gaitasun emozionaletan trebatzea.

Eskolako protokoloa eta plangintzaren diseinua jokabide arazoetan esku-hartzeko

Horrela izanda, esku-hartze plangintzan adimen emozionalean inplikatur dauden gaitasunak lantzen dituzten metodologiaren bidezko ariketak eta estrategiak proposatuko ditut, pertsona guztiak trebatzeko helburuarekin.

Jarraian, arestian egindako jokabide arazoaren sailkapenaz mintzatuko naiz. Sailkapen hori irekia da, hainbat zailtasun mota hartzen ditu barne eta sailkapenaren helburua ez da etiketen erabileran erortzean, baizik eta diagnostiko zehatza lortzea. Bestetik, esan beharra dago gelako edozein ikaslek jasan ditzakeela jokabide zailtasunak eskolan igarotzen den urteetan zehar, horregatik, egindako proposamenean zailtasun mota anitzak hartzen dira kontuan, ez soilik Hezkuntza Premia Bereziak zehazki direnak, baizik eta haurren ikaskuntza prozesuan eta gelako giroan eragin ditzaketen zailtasunak ere. Hau guztia kontuan izanda, proposamenak izaera guztiz malgua eta irekia duela ondorioztatu daiteke, beraz, aldiro informazio gehiagorekin aberastu daiteke ekarpen esanguratsuak dituzten eskolako profesionalen partetik, betiere PTak berrikusi eta onartuz.

Segidan, esku-hartze eredu ezberdinen ekarpenak oso baliagarriak suertatu zaizkit proposamena aurrera eramateko. Hasteko, eredu konduktistatik estimuluek nahiz bizitako esperientziek ikaskuntza prozesuan eta jarreran eragina dutela onartu beharra dago, beraz, estimuluak lantzea eta esperientzia esanguratsuak proposatzea oso erabilgarria izango da jokabideen agerpena sustatzeko eta ikasleen ikaskuntza prozesua aberasteko. Horrez gain, konduktismoari esker hainbat teknika garatu dira jokabideak murriztu edo areagotzeko eta ekarpen horiek proposamenean erabiliko ditugu adimen emozionala landuz estrategia aberats eta esanguratsuak lortzeko.

Bestetik, eredu humanistatik emozioek gure ikaskuntza prozesuan paper garrantzitsua jokatzen dutela ondorioztatzen da. Pertsona bakoitzak bere potentziala garatzeko gaitasuna dauka eta bere gaitasunak aktibatzeke arduraduna izango da, ekimen pertsonalaren ardura hartuz autoerrealizazioa lortzen delarik. Hortaz, gure eginkizuna irakasle bezala jardun autonomoa sustatzea izango da, gehiegi bideraturiko ekintzak ekiditen direlarik. Guzti hori haurrak motibatuz eta prozesuan lagunduz lortuko dugu.

Eredu sistemikoa jorratu zuten autoreek zioten subjektuaren jokabide edo arazoaren zergatia ulertzeko terapian bere inguruko sistemen parte-hartzea ezinbestekoa dela. Kasu honetan, Haur Hezkuntzako etapako haurren sistema nagusia familia izango da, beraz, gure esku-hartze proposamenean familiarekin harreman estua lortzea eta informazio elkartrukaketa konstantea lortzea izango da landuko den esparru nagusietako bat, eskolan nahiz familia bide berdinetik haurrak laguntzeko.

Azkenik, eredu kognitibotik ikasi behar dugu haurren ikaskuntza prozesuan eragiten duten prozesu mentalak aztertu behar ditugula, hala nola, arrazonamendu logikoa, arreta mantentzeko gaitasuna edo oroimen maila. Guzti hori kontuan hartuz gero, behaketa indibiduala, sakona eta erregistroa eginez haurrek nola pentsatzen duten eta nola ikasten duten ulertzeko eta erabiltzen dituzten mekanismoetan eragin estrategia horiek hobetzeko aukera paregabea lortuko dugu.

Psikologiaren historian zehar nabarmendu diren ikuskera ezberdinen ekarpenez sakondu ondoren, esku-hartze ikuskera bakoitzak alde indartsuak eta ahulak dituela ondoriozta daiteke. Horregatik, diseinatutako proposamenean eredu bakoitzaren alde indartsuak integratuko ditut, aberatsa den eta ikuspegi anitz kontuan hartzen dituen esku-hartze plangintza egiteko.

Azaldutako teoriaz hausnartzen bukatzeko, ikuspegi inklusiboak eskaintzen dituen ekarpenak aipatzea beharrezkoa da. Ikuspegi inklusiboa eskolan, gelan, ikasleekin, irakasleekin eta hezkuntza komunitate osoarekin lantzea ezinbesteko faktoreak dira ikasle guztien sozializazioa, gizartean txertatzea, lanpostu duina lortzea eta bizi kalitate ona lortzeko. Prozesu hori jaiotzatik hasiko da eta eskolan jorratu behar dugu, gure gelan talde kohesioa lortuz, gelako dinamikan eta hezkuntza sisteman aktiboki parte-hartzea ikasle guztien eskubidea baita. Talde kohesioa lantzen denean, kide guztiek elkar onartzen dute eta baliagarria izango da guztientzat, ez bakarrik Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haurrentzat. Elkarri onartzen dugunean, beste pertsonak ezagutuz guztiok zerbait berria ikasiko dugu gure bizitzan aplikatzeko: balore, ikuspuntu ezberdinak, kultura eta erlijio ezberdinak daudela onartu eta pertsona bakoitzak gaitasun eta mugak dituela, baita bizitzeko modu ezberdina ere.

Aurretik aipatutakoa laburtuz, lanean zehar sakondutako teoria kontuan hartuz PT bezala esku-hartzeko jarraitu beharreko protokolo bat proposatuko dut. Protokolo horren barnean gelan hezkuntza premiak detektatzen direnean aurrera eraman behar diren pausuak zehaztuko ditut. Bestetik, jokabide arazoak dituzten hurrekin erabili daitekeen esku-hartze plangintza bat diseinatuko dut. Atal teorikoan landutako informazioaren ekarpenak modu laburrean elkartzeko, mapa kontzeptual bat sortu dut:

3.1 Protokoloaren diseinua

Atal honetan gelako aniztasunari erantzuna emateko protokoloaren diseinua agertzen da. Protokolo bat egiteko proposamena eskolatze etapan gerta daitezkeen zailtasunei erantzuteko jarraibide gisa erabil daitezkeen pauso orokorrak zehazteko beharraren ondorioz sortu da.

Izan ere, gaur egungo legeetan aniztasuna askotan aniztasunaz hitz egiten da, baina ez da ezer aipatzen eskolan aniztasun horri aurre egiteko jarrai daitezkeen pausoen inguruan. Lanaren lehenengo atalean jorratutako legeetan, hau da, LOEn eta foru aginduetan, PTaren funtzioak zehazten dira, baina ez da ezer proposatzen funtzio horiek aplikatzeko moduaren inguruan. Soilik PTaren jardunbidea eskola bakoitzeko Aniztasun Planean zehaztuko dela esaten da.

Horrela ba, gaur egungo eskoletan aurkitzen dugun egoera hurrengoa da: eskola bakoitzean Aniztasun Plan propio bat garatu da, non esku-hartze protokolo propioa ere zehazten den. Oso gutxitan bada ere, zenbait eskoletan esku-hartze jardunbiderik ez dela osatu aurkituko dugu, derrigorrezkoa ez delako, edo idatziz egina ez dagoela aurkitu. Hortaz, eskolen artean desoreka aurkituko dugu, zenbaitetan protokoloa dagoela, haurren ikaskuntza, inklusioa eta gizartean txertatzea erraztuz, beste kasuetan protokolorik ez dagoen bitartean, esku-hartzea, ikasleen ikaskuntza prozesua eta gizarteratzea oztopatuz.

Hau guztia kontuan hartuta, legediaren aldetik sortutako hutsuneari eta eskolen arteko jardunbide ezberdintasunei aurre egiteko beharraren aurrean aniztasunari erantzuteko protokolo orokor baten diseinua proposatzen dut.

Diseinatu dudan protokoloaren helburua etorkizunean eskola guztietan erabiltzea posible suertatzea da, Hezkuntza Premia bereziak detektatzean jarraitu beharreko pauso orokorrak zehaztuz, esku-hartzea erraztuz. Bestetik, esan beharra dago protokoloaren izaera irekia izango dela, nik proposatutakoa orokorra da eta aldioro eskolaren ezaugarrien arabera osatu daiteke, betiere oinarrizko pausoak errespetatzen diren bitartean.

1.Taula: Aniztasunari erantzuteko protokoloa

Epea	Arduraduna/k	Egin beharrekoa	Erabilitako dokumentuak
Kurtso hasieran eta lehenengo bi asteetan zehar: Plangintza osatu.	Orientazio departamentua	<ol style="list-style-type: none"> 1. Orientazio Departamentuak bileran aniztasunari erantzuteko plangintza prestatzen du . Horretarako, hurrengo informazioa erabiliko da: <ol style="list-style-type: none"> a. Aurreko ikasturteko informazioa: aurreko ikasturteko HPB eskaerak eta jasotako barne eta kanpo laguntzak. b. Ikasturte berriko informazioa gehitu: informazio berria lortzeko ikasleen maila curricularra neurtuko dugu eta behaketa egingo dugu. 2. Beharrezkoak diren laguntzak ezagutu ondoren laguntza zerbitzuen eskaera egingo da. 3. Bileran jorratutako gaien erregistroa egingo da aktan idatziz. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Laguntza Unitateko bilera akta (Ikusi III. Eranskina). • Aurreko ikasturteko Aniztasun Plana. • Laguntza eskaera egiteko txostena .
Klaseak hasi baino lehen eta ikasturtearen lehengo egunetan zehar.	Tutoreak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Tutoreak gelako haurrei buruzko informazioa bilatu haien ezaugarriak ezagutzeko: <ol style="list-style-type: none"> a. Aurreko ikasturteen notak ikusi EDUCAn. b. Ikaslearen txostena karpeta (aurreko urteko informazioa). 2. Frogetarako familiaren inplikazioa lortu (pertsonalki esten diegu eta idatziz, bileran adibidez, edo telefonoz, posta-e.). 3. HPBak diagnostikatuta baditu familiei informazioa emanen zaie kurtsoa hasi baino lehen, adibidez: ordutegia, hots, noiz jasoko duen laguntza ikasleak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Notak • Ikasleen txostena • Gurasoek baimena emateko agiria (Ikusi IV. Eranskina).

<p>Irailaren lehenengo bi asteetan zehar</p>	<p>Tutorea Laguntza irakaslea</p>	<p>Ikasle guztien maila curricularra aurrebaluatu. Horretarako:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikaslearen perfil psikoebolutiboa aztertu beharko da. 2. Maila curricularra neurtzeko taulak pasa, adinen arabera. Taula horiek orientatzaileari eskatuko dizkiogu. 3. Aurreko kurtsoko ikaslearen notak EDUCA (ebaluazio txostenak) aztertu eta gainditu ez dituen helburuak aukeratu eta zerrenda bat egin. Kanpoko azterketen emaitzak aztertu, adibidez, PISA. 4. Idatzirik egon daitezken txostenak, adibidez profesionalen arteko txostenak, jaso, irakurri eta aztertu. 5. Behaketa zuzena egin. <ol style="list-style-type: none"> a. Haur Hezkuntzan, eskolan sartu berriak diren ikasleekin, hots, 3 urteko gelan, egokitzapen aldian behaketaren helburua haur bakoitzaren ezaugarri psikologikoak, motorrak eta kognitiboak ezagutzea izango da. Bestetik, behaketan garrantzi berezia emango zaio sintomak aztertzeari, esku-hartze goiztiarra egiten dela bermatzeko. 6. Lortutako informazio guztiaren erregistroa egingo da, behaketa erregistro aktan islatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Maila curricularra neurtzeko taulen bilduma • Behaketa erregistro akta (Ikusi V. Eranskina).
--	---------------------------------------	--	---

<p>Hezkuntza Premia Bereziak antzematen direnean (ikasturtearen hasieran nahiz urtean zehar)</p>	<p>Tutorea Laguntza irakaslea Arlo ezberdinetako irakasleak (Guztiak koordinatuta daudelarik)</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Tutoreak haur batek arazoak dituela ikusten badu galdetegi bat bete behar du behatu duena idatziz, txosten bat bete eta orientatzaileari pasa. 2. Ondoren, gurasoekin bilera bat egingo da ikusten bada gurasoek ez dutela oraindik ezer antzeman. Bilera horretan tutorea, PT-a eta orientatzailea ere egongo dira. Gurasoei zein neurriak hartuko diren eta etxean zer egin dezaketen azalduko zaie. 3. Bilera ondoren, orientatzailea esku-hartzen hasiko da, tutoreak eskaintzen dion informazioarekin (behaketa erregistro taula/akta, esku-hartze txostena eta gurasoekin egindako bileraren informazioa) 4. HPBen behaketa eta esku-hartzeaa egiten den bitartean (beharrezkoa balitz, kanpoko espezialista baten laguntzarekin) ebaluazioa egingo da. 	<ul style="list-style-type: none"> • Behaketa erregistro taula/akta. • Orientazio Departamentuaren esku-hartzearen txostena/ Profesionalen arteko txostena (Ikusi VI. Eranskina). • Gurasoekin bilera prestatzeko fitxa (Ikusi VII. Eranskina).
	<p>Tutorea Hezkuntza Laguntza Unitatea Laguntza irakaslea Arlo ezberdinetako</p>	<p>Esku hartzearen proposamena egingo da. Horretarako, neurriak hartuko dira. Nahasteen arabera, esku-hartzea ezberdina izango da. Horregatik, esku-hartze plangintza egiteko nahaste moten zerrenda bat egingo da eta horien araberrako plangintza.</p> <p>Haur Hezkuntzan: PTa ohiko gelan sartuko da inklusioa lantzeko, hortaz bere eginkizuna irakasleei laguntza eskaintzea, ikaslearekin eduki zehatzak lantzea eta aurrerapenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Guraso bileraren akta (Ikusi VIII. Eranskina). • Esku-hartze proposamenaren jarraipena (ikusi IX. Eranskina).

	irakasleak	<p>ebaluatzea izango da. Irakaslea laguntzean, teknikak erakutsiko dizkio gelan erabiltzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Irakasleari informazioa eskaini. • Prozesuaren jarraipena egin. • Erregistroa. • Esku-hartze prozesuan parte hartuko da, irakaslea gidatuz eta laguntza eskainiz. <p>Lehen Hezkuntzan:</p> <p>PTak aukera badu kasuaren arabera, eraginkorragoa dela ziurtatu ondoren, ohiko gelan sartu eta PT gelan saioak ematea konbinatuko du. Horretarako tutore eta gurasoei baimena eskatuko zaie eta Hezkuntza Laguntza Unitatearekin batera plangintza adostuko da.</p> <p>PT gelako eta ohiko gelako saioak konbinatzea ezinezkoa den kasuetan, saio guztiak PTaren gelan emango dira.</p> <p>PT gelan saioak egiten direnean ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonalak kontuan hartuta saioak taldeka edo indibidualki (edo konbinatuz) aurrera eramatea planteatuko da.</p>	
--	------------	---	--

Ebaluaketa bakoitzaren amaieran	Tutorea eta Laguntzen arduraduna.	Eginiko lanaren balorazio txostena/ Helburuetan eta egokitutako unitateetan oinarrituz: gela guztietan egin den esku-hartzearen balantzea jasotzen da eta Orientazio Departamentuko artxibategian gordeko da. Bertan bilduko diren datuak isilpekoak dira eta Orientazio Departamentuak behar dituen txostenak idazteko eta erabakiak hartzeko erabiliko da.	Ebaluazio amaierako balantze-txostena. Noten txostenak.
Kurtso amaieran	Orientazio Departamentua	Ikasturtean eginikoaren balantze-txosten orokorra idatziko da. Gela bakoitzean egin dena, nolako emaitza izan duen, eta datorren ikasturteari begira egiten den aurrebalorazioa edo aurreikuspena adieraziko da.	Kurtso amaierako balantze-txosten orokorra.

(Trebol, 2012)

3.2 Esku-hartze proposamena

Aurreko atalean aniztasunari aurre egiteko protokolo bat diseinatu dut, gaur egungo eskoletan aurkitzen dugun beharrari erantzuna emateko esku-hartze neurria da. Helburua, hortaz, eskolek protokolo hori oinarritzat hartzea da, guztiek norabide berdinetik jardun dezaten. Eskola bakoitzak protokoloari izaera propioa emateko aukera izango du, betiere oinarritzko pausuak eta haien ordena errespetatuz.

Atal honetan, adimen emozionala lantzeko haurren testuinguru ezberdinetan kontuan hartu beharreko faktoreak azaldu eta protokoloan zehazten den esku-hartze atalean txertatzeko taula bat aurkeztuko dut. Taula horretan – begiratu 2.Taula - jokabide arazoetan esku-hartzeko teknikak osatzeko adimen emozionalaren aplikazioa da nire proposamenean nabarmendu nahi dudana.

Plangintza honen bidez ikasleen testuinguruko alderdiak kontuan hartzea lortzen da, baita bere ezaugarri pertsonalak eta psikologikoak ezagutzea eta horietatik abiatzea ere, bere ikasteko modura egokitzen den eta potentziala aktibatzen duen teknikak erabiltzeko. Bestetik, helburua jokabide arazoak dituzten haurrekin esku-hartzeko plangintzan jokabide baten agerpena edo murriztea lantzen dituzten teknikak erabiltzea eta hauek adimen emozionalaren ekarpenak aplikatuz *osatzea* da.

Hau guztia kontuan hartuta, protokoloaren esku-hartze fasea osatzeko hainbat atal txertatuko dira. Lehenik eta behin, adimen emozionala lantzeko testuinguru ezberdinetan kontuan hartu beharreko faktoreak azalduko dira, hots, familia eta eskola, zehazki, irakaslearen jarduna aberasteko ezaugarriak eta gelan talde kohesioa sustatzeko proposamena. Ondoren, jokabide arazoei aurre egiteko teknika eta estrategia orokorrak eta adimen emozionala jorratzen dituzten teknikak konbinatzen dituen taula agertuko zaigu.

Taula honek adimen emozionala jorratzeko estrategiak laburki azalduko ditu eta horren helburua irakasleek taula begiratzean egoera ezberdinen arabera egin daitekeenaren ikuskera orokorra ulertzea izango da. Taulan bertan agertzen diren

adimen emozionalaren inguruko ezaugarriak aurrerago sakonki azalduko dira irakasleak gidatzeko helburuarekin, plangintzaren azken atala izanik.

3.2.1 Adimen emozionala lantzeko testuinguru ezberdinetan kontuan hartu beharreko faktoreak

Gelan adimen emozionala hobetzeko estrategiak aurrera eramateko, aldeztu aurretik hainbat faktore hartu behar ditugu kontuan, hain zuzen ere, testuinguru familiarra eta eskolako testuingurua. Azken honetan indar asko izango du irakasleak jokatzen duen modua eta bere adimen emozional maila, baita gelan talde kohesioa eta giro atsegina sortzeko esfortzua egitea ere. Talde kohesioa sustatzeko hainbat ariketa proposatuko dira.

3.2.1.1 Testuinguru familiarraren garrantzia

Haurren lehenengo sozializazioa familiaren eskutik doa. Familiaren bidez, haurrak bere lehenengo esperientziak bizitzen ditu, hitz egiten ikasten du, lehenengo emozioak, elkarrekintzak eta oroitzapenak bizitzen ditu. Guzti horri esker, haurraren ikaskuntza prozesua familiarekin dagoen epean hasten da. Horregatik, haurraren familiak eredu emozional sendoa eskaintzea oso garrantzitsua izango da, hots, oreka emozionala erakutsiz. Familian adimen emozionalaren arrakasta eguneroko ekintzetan lortzen da, hain zuzen ere, ekintza horietan bizitako emozioak haurrarentzat esanguratsuak izango direlako: gatazkak eta horiei irtenbidea emateko prozesua, errutinak, afektibitatea erakustea, giro lasaian murgilduta egotea, seme-alabarekin hitz egitea, ipuinak kontatzea, elkarrekin bainua hartzea, igeri egiten ikastea edo parkera joatea (Muñoz eta Martínez de Urmeneta, 2012; Trebol, 2014).

Orokorrean, gurasoek haurrak hezteko hiru estilo dituztela esan daiteke:

- Autoritate gehiegi erakusten duten gurasoak: seme-alabak modu honetan hezten dituzten gurasoek haurrak emandako aginte guztiak betetzea espero dute, negoziazio aukera eskaini gabe. Diziiplina gehiegi lantzen da eta seme-alabek ez dute askorik euren iritzia emateko aukerarik. Hortaz, etorkizunean haur horiek ziurtasun falta erakutsi ohi dute, erabakiak beti haien ordeztuak beste

pertsona batek hartzen dituelako. Bestetik, lanean zehar esan dugu psikologian ondorioztatu dela zorrotzegiak diren praktikek ez dutela arrakastarik jokabide disoziala edo desafiantea duten hurrekin. Hortaz, seme-alabak hezteko modu hau ez da hezigarria eta autoritate gehiegi erakustea ekidin behar da.

- Baimena askotan ematen duten gurasoak/guraso permisiboak: seme-alabak modu honetan hezten dituzten gurasoek ez dituzte limite edo arau zehatzak ezartzen, justu kontrakoa gertatuz. Erabaki guztiak seme-alaben ardurapean uzten dira eta hurrek gatazkei konponbidea euren kabuz aurkitzea bilatzen da. Hortaz, hurrek ez dituzte beti erabaki aproposak hartuko, azken finean haurrak direlako eta gurasoek eskaintzen dieten laguntza ez da aski izango euren ikaskuntza prozesuan bide egokitik ibiltzeko. Beraz, baimena askotan ematea ere ez da onuragarria izango.
- Eskumen gehiago eta negoziazio aukera eskaintzen duen estiloa: aipatutako bi estiloen artean aurkitzen dugu estilo hau. Gurasoek seme-alabak gidatzen dituzte gehiegizko kontrolean erori gabe eta erabakiak hartzeko prozesuan laguntzen dituzte. Bestetik, gurasoek seme-alaben iritzia entzuten dute eta akordioetara ailegatzeko negoziazioa egiteko aukera eskaintzen dute. Hortaz, modu horretan hezten diren hurrek konfiantza erakutsi ohi dute, erabakiak hartzeko gai dira, independenteagoak baitira, eta harreman sozialetan trebeagoak dira. Beraz, esan daiteke haur horiek adimen emozional altuagoa lortzen dutela (Esarte, 2014).

Azaldutako guztia kontuan hartuz, orduan, seme-alabak hezteko modu hobereana negoziazioa eta erabakietan laguntza eskaintzea ahalbidetzen duena dela argi gelditu da. Gurasoek jokabide asertiboa hartu behar dute, euren emozioak identifikatu eta erregulatzeko trebatu seme-alaben emozioak ulertu ahal izateko. Horrela emozioak naturaltasunez eta modu eraginkorrean tratatzen diren familietan hurrek adimen emozional altuagoa garatzeko probabilitatea handituko da.

3.2.1.2 Eskola testuingurua

Familiaz gain, eskola haurren garapen eta ikaskuntza prozesuan parte hartzen duen testuinguru garrantzitsuenetariko bat da. Eskolan adimen emozionala lantzeko bi

faktore nagusi landu behar ditugu, irakaslearen papera eredu emozional sendoa erakusteko eta gelako dinamika nola izan behar duen talde kohesioa sustatzeko.

Irakaslearen papera

Irakasleak orokorrean koherentzia eta eredu emozional positiboa erakutsi behar ditu. Adimen emozionalean trebea den irakasleak hurrengo ezaugarriak aurkeztu behar ditu:

- Akatsak onartu: zerbait gaizki egiten dugunean, haurrak berehala konturatzen dira. Akatsak naturaltasunez onartzen ditugunean onuragarria izango da, eredu koherentea erakutsiko baitugu. Izan ere, haurrek ikusiko dute helduok akatsak egiten ditugula eta ez dela ezer gertatzen, akatsetatik ere ikasi baitaiteke, etekina lortuz.
- Ikasleak transmititu nahi digun mezua ulertzeko, *entzute aktiboa* eta hortaz komunikazio berbala eta ez berbala landu behar ditugu. Komunikazio berbala eta ez berbala eraginkorrak izateko gure ahots tonua, gorputz tonua eta mezua bide berdinetik joan behar dira, modu koherente batean.
- Haurrek esaten dutenaren atzean dauden mezu emozionalak deszifratzeko esfortzu bat egin behar dugu, konponbide batera ailegatzeko laguntzeko, dituen aukerak erakutsiz. Horretarako, arazoa eta emozioak ulertzen ditugun heinean hitz klabeak erabiliz erantzungo diogu.
- Haurren lekuan jarri behar gara, haien emozioak ulertuz. Horretarako *empatia* eta *asertibitate* ezinbestez landu behar ditugu. Haurrek euren emozioak ulertzen ditugula eta askatasunez adieraz ditzaketela sentituz gero, eskolara gustura etortzea eta hobeto ikastea lortuko dugu. Bestetik, giro lasaia sortu, haien autoestimua hobetzea, errendimendua hobetu, sormena gehiago erabiltzea eta diziplina arazoak murriztea lortuko dugu. Dena den, ez dugu beti empatikoak izan behar. Egoera ulertzen ez dugunean edo haurra arrazoirik gabe negarrez hasten denean, ez diogu kasu egingo aurrera eramaten ari den jarrera gustuko ez dugulako.
- Hezkuntza ez zuzena: haurrek imitatzen gaituzte, horregatik eredu sendo bat eskaini behar diegu. Irakaslearen eginkizuna gatazken aurrean emozio propioak

Eskolako protokoloa eta plangintzaren diseinua jokabide arazoetan esku-hartzeko

ongi kudeatzea izango da, gatazkak konpontzeko erabaki egokiak hartuz. Nahiz eta guk ez konturatu, guk emozio bat sentitzean gure gorputz jarrerak erakutsiko du eta haurrak konturatuko dira. Haserre, kezkatuta edo nekatuta gaudenean inkontzienteki mugimendu/keinu/ahots tonu ezberdinak erabiltzen ditugu eta konturatu gabe transmititzen diegu, horregatik ezaugarri horiek kontrolatzeko gaitasuna landu behar dugu.

- Objektiboak izateko esfortzu bat egin behar dugu, ezaugarri hauek landuz:
 - Gorputz jarrera eta ahots tonu neutroa, asertibitatea.
 - Aurreiritziak, sexu eta jatorri ezberdintasunak eta iritzi negatiboak alde batera utzi.
 - Erlaxatu, aldez aurretik esan behar duguna pentsatu, zentratu bakarrik haserretu gaituen edo konpondu behar den horretan.
 - Hurrei pentsatzeko momentu bat eskaini eta pentsatzen irakatsi.
- Emozioen aurrean: jarrera kritikoa izan behar dugu. Justifikazioa al du sentitzen dudana? Egoera zail bat igarotzen ari naizelako sentitzen naiz horrela edo benetan kausa ulergarri bat dago?
 - Kausaren aurrean: ordezeko aukerak bilatu.
 - Justifikatuta ez badago: lasaitu edo birbideratu zerbait positiboa lortzeko. Adibidez, hurrei kontatu nola sentitzen zaren eta haiei zure arazoari konponbide bat bilatzeko laguntza eskatu, ordezeko aukerak proposatzeko esan.
- *Lotura emozionala* edo afektiboa ezarri ikasleekin: haurrak ezagutzen ditugunean eta haiekin harreman estua lantzen dugunean horrek esku-hartzea erraztuko du.

Gelako talde dinamika

Gelan talde kohesioa egotea sustatu behar dugu, ikasle guztiek taldean parte-hartzen dutelarik. Horretarako gelakideak onartzea nahiz onartua izateko ahalegina egitea ezinbestekoa da. Denek ekarpenak egin ditzakete, bakoitzak trebea den horretan laguntza eskaini dezake eta talde osoari lagundu. Hau guztia landuta, talde sentimendua garatuko dugu haurren eta guztientzat esperientzia aberasgarria izango da. Talde kohesioa lantzeko hainbat ideia garrantzitsuak dira, kontuan hartzekoak:

- Ikasleek *emozioak adierazteko* askatasuna dagoela sentitu behar dute, emozioen kudeaketan trebatzeko. Epaiaketak ekidin, ikuskera irekia izatea sustatu.
- *Autokontrol* emozionala landu, adibidez, asanbladan berarentzat interesgarria den zerbaitez hitz egiten ari direnean gehiegizko aktibazio emozionala kontrolatzen jakitea, adibidez, ekarpenak egiteko txanda itxarotea.
- *Enpatia* landu behar dugu gelan. Ikasleek ez dute soilik jakin behar nola sentitzen da beste pertsona, baizik eta zer behar duen egoera horri konponbide bat emateko edo laguna lasaitzeko.
- Gelako elkarbizitza bermatzeko *arau argiak* eta limiteak zehaztea oso garrantzitsua izango da, nahiz eta sinpleak izan. Horretarako, guztion artean arauak adostuko ditugu eta paretan jarriko ditugu, irudien bidez.
- Haurrak jarrera egokiak eta desegokiak ezberdintzeko gaitasunean trebatu:
 - Egindakoa *sozialki onartuta* dagoen.
 - Arauak edo limiteak apurtzen dituen.
 - Gelakideen ongizatea arriskuan jartzen duen .
- *Trebetasun sozialak* landu:
 - Elkarrizketa bat hasten, bideratzen eta bukatzen jakin.
 - Zerbait ez ulertzean galderak egiteko gai izan.
 - Laguntza eskatzeko gai izan.
 - Esperientzia propio bat kontatzeko gai izan.
 - Kritika bat eman eta jasotzen jakitea.
 - Goraipamenak eman eta jasotzen jakitea.
- *Komunikazio trebetasunak* landu, hurrengo ezaugarriak kontuan hartuz:
 - Hitz egiteko toki eta momentu egokia aukeratu.
 - Helburu eta eskakizun zehatzak eta argiak eskaini.
 - Leporatzea, mehatxuak eta gehiegizko eskakizunak ekiditea.
 - Interpretazio errealistak egitea.

- Etiketak eta orokortzea ekiditea: “___-ek beti jotzen nau” esan ordez, “*gaur haserre zegoelako jo nau baina barkamena eskatu dit jada*” esaten irakatsi.
- Elkarrizketak ez moztzen ikasi.
- Testuinguruarekin bat datorren egoera animikoa izaten erakutsi.

Adimen emozionala lantzeko talde ekintzak

1. Makinistak egunero asanbladan bere argazkia itsatsi bere emozioa hoberen adierazten duen aurpegiaren gainean, irudi errealak erabiltzen ditugularik.
2. Asanbladan: egunero guztiek makinistaren gauza onak esan behar dira, baita zer gustatzen ez zaien edo zer gustatuko litzaike berak ez egiteko, txartelak erabiliz. *Zer iruditzen zaizue dibertigarria berak egiten duenaz? Oso dibertigarria daegiten duelako. Oso lagun ona da-lako.*
3. Egunero makinistak bere argazkia hartu eta emozioak lantzen dituzten aurpegietan itsatsi. Irakasleak galdetu: zergatik sentitzen zara horrela? Zer egin dezakezu horrela ez sentitzeko?
4. Komunikazio ez berbalari buruz eztabaida sortu: guztion arean gustukoak ditugun eta gustukoak ez ditugun keinuen zerrenda egin.
5. Adierazpen emozionala lantzeko: une bakoitzak emozio bat antzeztu hitzak erabili gabe, esaldi bera esan ahots tonu ezberdinekin: haserre erakutsiz eta nekea edo egoera animiko baxua erakutsiz (lotsa, tristezia edo jarrera axolagabea).
6. Mimikaren bitarteko jokoak: pelikulak asmatu.
7. Gelako gatazken inguruko gaiak lantzen dituzten ipuinak kontatu.
8. Jolas sinbolikoa sustatzen duten ekintzak prestatu.
9. Arazoak edo egoera animiko zehatzak azaltzen dituzten ipuinak kontatu (Iriarte eta Alonso-Gancedo, 2008).

2.3.2 Jokabide arazo ezberdinetan eragiteko teknikak psikologikoak eta adimen emozionalaren ekarpenak

Aurreko atalean familian eta eskolan orokorrean adimen emozionala lantzeko estrategiak azaldu dira, haurren bizitzan esanguratsuak diren testuinguruak

hezkuntza praktikan integratzea ezinbestekotzat jotzen dudalako. Atal honetan, ordea, jokabide arazoak dituzten hurrekin erabili daitezkeen tekniketan sakonduko dut. Horretarako, esku-hartze teknika psikologikoak eta adimen emozionala uztartzen dituzten teknikak taula batean integratuko ditut. Aurrerago aipatu dudan bezala, taula hori gaur egungo eskoletako irakasleek erabiltzeko helburuarekin diseinatu da. Taula erabilgarria izan dadin, bertan adierazten diren ideiak modu laburrean agertuko dira.

Taulan agertzen diren teknikak aukeratzeko hainbat faktore hartu behar dira kontuan: ikasleen adina, jokabide arazo mota, arazo horren larritasuna, maiztasuna, iraupena eta intentsitatea, taldearen ezaugarria eta haurraren ezaugarriak, hots, nola ikasten duen, izaera eta garapen psikologikoa. Taularen erabilera, hortaz, subjektiboa da, irakasle bakoitzak bere irizpideen arabera erabiliko du eta osatzeko aukera izango du. Helburua taula orientabide eta oinarri gisa erabiltzea da, baita esku-hartze plangintza aberatsa aurrera eramatea ere.

Bukatzeko, taulan agertzen diren jokabide arazoen zerrenda hauxe da: hiperaktibitatea, jokabide disoziala, jokabide desafiantea, fobia eskolarrak, estresa, larritasuna eta depresioa. Jokabide nahaste horiei buruzko definizioa, sintomak eta esku-hartzea ezagutzeko ikusi 22-30 orrialdeak. Hona hemen aipatutako taula:

2. Taula: jokabide arazo ezberdinei aurre egiteko teknika eta estrategiak.

Jokabide arazo mota	Proposaturiko teknikak eta estrategiak, ohiko gertaerei aurre egiteko	Emozioen lanketa nola egin
AFN-H	<p>Haur Hezkuntzan:</p> <p>Prebentzio neurriak hartu eta sintomak landuko dira.</p> <p>Hezkuntza neurri arruntak hartuko dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Arau argiak, zehatzak eta hauraren adinari egokituak. • Materialak hainbat formatuetan aurkeztu gaitasun bisuala eta entzumenezkoa lantzeko. • Autoerregulazio programak. • Harremanetan trebatzeko programak. • Arreta hobetzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Berariazko programak. - Teknikak: begi kontaktua erabili, arreta deitu galderak egiten, gauzak aldioro birgogoratu eta Feedback etengabe erabili (Iza, 2013). 	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko emozioak identifikatu eta erregulatzeko estrategiak garatu, adibidez urduritasuna, haserrea eta frustrazioa. • Autoerregulazioa landu: <ul style="list-style-type: none"> - Arriskuak identifikatu horiek ekiditeko. - Jarrera erreflexiboa. • Autoestimua eta irudi pertsonala landu: <ul style="list-style-type: none"> - Autokontzeptua, konfiantza, norbere burua onartzea, itxaropen errealistak bere buruarekiko, irudi positiboa eraiki. - Eredu gisa erabili gelan trebea den horretan. - Motibazioa landu: ongi egiten duena goraiatu. • Ikaskuntza estiloa aztertu bere gaitasunen arabera

	<ul style="list-style-type: none"> • Jokaeraren entrenamendu kognitiboa. • Arreta falta lantzeko teknikak: moldeamendua, kitzikatzailea eta kateatzea aproposak dira.. Kontingentzia sistemak: fitxen ekonomia, helburua arrera mantentzea izango delarik. Desagertzea eta denbora kanpoan erabiltzea ekidin, haurrari errefortzu galtzeak ez diolako gaizki egindakoaz ohartzen lagunduko. • Gehiegizko mugimendua edo inpulsibitatea lantzeko: moldeamendua (lortu nahi dugun jokabidea: geldirik egotea), desagertzea eta errefortzu diferentziala. Kontingentzia sistemak: fitxen ekonomia, helburua zehaztuz. • Bi nahasteekin: jokabide ezegokiak agertzen badira, adibidez, lagun bat jo, errefortzu negatiboa erabiliko dugu. 	<p>ikaskuntza sustatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ariketa fisikoa eskatzen duten zeregin txikiak eman. • Harreman sozialetan trebatu taldean onartua izateko. • Afektibitatea erakutsi sintonia emozionala lantzeko. • Konfiantza sortu, onartua sentitzea sustatu behar dugu (guk eta taldeak onartzen duela sentitu).
--	---	--

<p>Jokabide disoziala</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Arau eta muga argiak ezarri, zehatzak eta haurren adinari egokituak, helduarekin eztabaidak ez sortzeko. • Arauak eta mugak apurtzearen ondorio zehatzak ezarri eta ondorioak bete. • Autoinstrukzioak, arazoan ebazpenean trebatu. • Ordezko aukerak bilatzen lagundu. • Harreman sozialetan trebatzen lagundu (Esarte, 2014;Iza, 2013). • Jokabide bat areagotzeko teknika aproposak: <ul style="list-style-type: none"> - Errefortzu positiboa. - Modelamendua: haurrari jakinaraziz zein den aurrera eraman nahi dugun jokabidea. - Kitzikatzailea: hitzez eta keinuz argi esan zerbait ongi egiten duenean, modu efusiboan, haurra motibatzen. • Jokabide bat murrizteko teknika aproposak: <ul style="list-style-type: none"> - Errefortzu negatiboa: aldioro jakinaraziko diogu zein den negatiboki indartuko dugun jokabidea. - Errefortzu diferentziala. 	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko emozioak identifikatu eta erregulatzeko estrategiak garatu: haserrea, agresibitatea edo mendekua hartzeko desioa kontrolatzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Aktibitate fisikoa emozioaren sintoma fisikoak baretu arte. - Gustuko dugun ekintza bat egin lasaitzeko. - Emozio hori sortu duen arazoari aurre egin. • Autokontrola landu inpultsibitatea kontrolatzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Aurre egiteko gaitasunak: frustrazioa landu, adibidez, ondorioak onartzen ikasi. - Ordezko jokabideak pentsatu. • Jokabide disoziala /agresibitatea zenbait kasuetan besteekin harremanak sortzeko gaitasun faltari (besteak ez ditu ulertzen eta besteak ez dute berarekin egon nahi) ordezko aukera moduan agertzen da. Hortaz, haur horiek harreman sozialetan trebatu behar ditugu, baita gainontzeko haurrek bera onartzen lagundu ere. Ariketa adibideak: <ul style="list-style-type: none"> - Role-playing lantzen duen ariketa, gelakideen
---------------------------	--	---

	<ul style="list-style-type: none"> - Denbora kanpoan: gogoeta bultzatzeko. - Gainzuzenketa: ondorioak onartzen laguntzeko, frustrazioak gaindituz. - 5 urtetik aurrera: kontingentzia sistemak. 	<p>tokian jartzeko eta bere burua ikusteko beste ikuspuntutik, gainontzekoek bera bezala jokatzeari. Ariketa hau egitean beti errespetutik landuko dugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bakoitzak bere buruarekiko eta beste pertsona bati buruz esan gustatzen zaiguna (gauza positibo bat) eta gustatzen ez zaiguna (gauza negatibo bat). - Ikasleak bere emozioak gero eta argiago adierazi, orduan eta hobeto ulertuko dituzte gainontzeko haurrak, baita irakaslea ere, emozio horiek hedatzen dira eta <i>sintonia emozionala</i> lortzen da.
Jokabide desafiantea	<ul style="list-style-type: none"> • Arau eta muga argiak ezarri, zehatzak eta haurren adinari egokituak, helduarekin eztabaidak ez sortzeko. • Arauak eta mugak apurtzearen ondorioak alde aurretik zehaztu behar dira eta modu konstantean aplikatu behar dira, testuinguru guztietan berdin. 	<ul style="list-style-type: none"> • Jokabide desafiantea haurra desoreka emozionalaren bat jasaten ari delaren seinale izango da. Gertaerak modu berezian bizitzen ditu eta emozio intentsu eta negatiboen bidez erreakzionatzen du. Hortaz: emozio horiek beste modu batean bizitzen trebatu behar dugu

	<ul style="list-style-type: none"> • Harreman sozialetan trebatzen lagundu. • Gero eta zorrotzagoak izan orduan eta jarrera negatiboagoa izango du haurrak → zorrotzegiak izatea ekidin behar dugu (Esarte, 2014; Iza, 2013). • Jokabide baten agerpena sustatzeko teknika aproposak: <ul style="list-style-type: none"> - Errefortzu positiboa: momentuan (ekintza gertatu bezain laster) eman behar da eraginkorrak izateko. - Moldeamendua: aldioro haurrari esango diogu zein da lortu nahi dugun jokabidea. - Kitzikatzailleak: <ul style="list-style-type: none"> - Hitzekoak: hitzez ekintza bat egiteko motibatu. - Inguruneak: gela egokitzea ekintza baten agerpena sustatzeko: lasaia den kide baten ondoan esertzea edo zarata sortzen duten tresnak gorde. 	<p>haurra. Nola?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emozioak adierazten trebatu: ikasleak bere emozioak gero eta argiago adierazi, orduan eta hobeto ulertuko dute gainontzeko haurrak, baita irakaslea ere, emozio horiek hedatzen dira eta sintonia emozionala lortzen da. • Emozioak erregulatzen trebatu: <ul style="list-style-type: none"> - Haserrearen bidez ez duela ezer lortuko erakutsi behar zaio. - Frustrazioa toleratzeko gaitasuna landu behar da, adibidez, ondorioen onarpen progresiboa. - Egoerei aurre egiteko gaitasunak - Ekintzen edo erabakien ondorioak onartu. <ul style="list-style-type: none"> - Horretarako haurrari erantzukizun ezberdinak ematea erabilgarria izan daiteke. Bere burua erabilgarri ikusten badu haserre maila jaitsiko da. Adibidez: lagun batez arduratu, txikiagoa den ikasle batez arduratu, irakaslea laguntzeaz arduratu.
--	---	--

	<ul style="list-style-type: none"> • Jokabide bat murrizteko teknika aproposak: <ul style="list-style-type: none"> - Desagertzea: irakaslearen arreta deitzeko jokabide desegokia duenean, arreta guztiz kenduko diogu, errefortzurik jasotzen ez duelarik, jarrera hori alde batera uzteko. - Denbora kanpoan: gelako giroa apurtzen duenean, egiten ari garen ekintzatik kanporatuko dugu denbora epe motz batez, errefortzu positiboa/negatiboa jasotzeko eskubidea galduz. Estimulurik jasotzen ez duen toki batera kanporatuko dugu eta gogoeta egiteko eskatu. - Gainzuzenketa: ekintza desegoki bat egitean aurreko egoerara bueltatzeko konponbide bat bilatzeak ondorioak onartzeko eta frustrazioa lantzeko prozesuan lagunduko du. - Kontingentzia sistemak: helduekin eztabaidatzen duten edo haien erabakiak desafiatzen dituzten hurrekin oso eraginkorra 	<ul style="list-style-type: none"> • Jokabide desafiantea irakaslearen arreta bereganatzeko erakusten denean: guk nola sentitzen garen adieraziko diogu, esanez haserretzen gaituela horrela jokatzeko, adibidez, eta ondorio koherenteak ezarriko ditugu. Haserre gaudenean, modu hotzean erantzun, afekturik erakutsi gabe, keinu gogorrek, gogoeta bultzatzeko. • Ekintza berriak proposatzean: esaldi zehatzak, motzak eta motibagarriak erabiliko ditugu. Izan ere, zerbait modu gogorrean esanez gero hurrak jarrera negatibo edo defentsiboa hartzea eragin dezakegulako. • Kontrajarriak diren interesen inguruan akordioa bilatzen lagundu, irakaslearekin baita gelako kideekin ere. • Zenbait egoeretan eraginkorra distrakzioa edo ariketa fisiko bat izango da, izan ere, haserrearen aspektu fisiologikoak (hormonen eragina, alerta egoera) 20 minutu ondoren desagertuko dira.
--	---	--

	<p>izango da akordio batera ailegatzen den teknikak erabiltzea.</p>	
Fobia eskolarrak	<ul style="list-style-type: none"> • Gelan jarrera negatiboa eta gehiegizko atzera egitea eragiten du, defentsa mekanismo gisa. • Forma azkarrean esku-hartu behar da eta behar den denbora hartuz. Azkarregi esku-hartzea ekidin behar da, kontrako efektua ez gertatzeko. • Fobian esku-hartzeko beldurgarria den egoeran kokatu behar dugu haurra beldurgarriak diren estimuluekin erlazionatzeko. • Eskolarekiko espoisizio/gerturatze graduala, sortuko den erantzuna aldeaz aurretik prebenituz. <p>Pausoen programazioa egin, adibidez:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Egoerak sortzen duen beldur gradua gutxitu: <ol style="list-style-type: none"> a. Beldurren hierarkia bat egin. b. Sintoma fisikoak azaldu haurrari horiek ulertzeko. 2. Egoerara hurbiltzeko kanpo laguntza eskaini. 	<ul style="list-style-type: none"> • Fobia eskolarra lantzeko familiarekin elkarlana ezinbestekoa izango da. Familiatik hasita eskolarekiko esperientzia positiboak bizitzea bultzatuko da eta eskolan jarraitu. • Oinarrizko emozioak identifikatu eta erregulatzeko estrategiak garatu, gehiegizko beldurra kontrolatzeko: <ul style="list-style-type: none"> - Aktibitate fisikoa beldurraren sintoma fisikoak baretu arte. - Gustuko dugun ekintza bat egin lasaitzeko. - Emozio hori sortu duen arazoari aurre egin. <p>Eskolara hurbiltze progresiboa egiteko ariketa bat:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Eskolan dagoenean beldurren hierarkia bat egingo dugu, jatorria identifikatu eta beldur gradua gutxitu. 2. Familiari egoera azaldu eta asteburuan paseo bat eman ez eskolara gerturatzea eskatuko diogu. Bidean zehar ekintzaren bat egitea (adibidez, hostoak hartzea)

	<p>3. Haurraren barne aldaketak sortu.</p> <p>4. Jokabidea errepikatzeko haurra motibatu (Esarte, 2014).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Jokabide baten agerpena sustatzeko teknika aproposak: <ul style="list-style-type: none"> - Errefortzu positiboa: teknika ezin hobea da haurra motibatzen eta ziurtasuna transmititzeko. - Moldeamendua: esango diogu zein den lortu nahi dugun jokabidea edo helburua. Kasu honetan, helburua beldurra sortzen duen egoeran lasai egotea izango da. - Kitzikatzaileak: helburu hori lortzeko hitzeko kitzikatzaileak, inguruko kitzikatzaileak eta kitzikatzaile fisikoak erabiliko ditugu. - Kateatzea: lortu nahi dugun helburua xede txikiagotan zatitu. • Jokabide bat murrizteko teknika egokiak <ul style="list-style-type: none"> - Kontingentzia sistemak: fitxen ekonomia. 	<p>eta behin eskolara iristean eskolaren inguruan positiboki hitz egitea. Horrela lortuko da eskolarekiko bizipen eta oroitzapen positiboak izatea, eta eskolarekiko emozio positiboak garatzea.</p> <p>3. Ondoren, eskola atarian haurrak gustuko duen zerbaitea jolastea proposatuko zaio, haurraren barne aldaketak sortzeko.</p> <p>4. Eskolara poltsa batean asteburuan eskolarako bidean hartutako hostoak eramango ditu umeak. Jarrera hori positiboki indartuko da.</p>
--	--	---

	<p>Helburua: beldurra sentitzeari uztea, fitxen bidez indartuko dugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jokabide ezegokiak agertzen badira (adibidez, lagun bat jo): errefortzu negatiboa, denbora kanpoan eta gainzuzenketa. 	
Larritasuna/ estresa	<ul style="list-style-type: none"> • Gelan jarrera negatiboa eta gehiegizko atzera egitea eragiten du. • Larritasuna edo estresa sentitzearen jatorria identifikatu behar dugu, behaketa egiten, galderak egiten eta gurasoekin hitz egiten. • Egoerara hurbilpen progresiboa: adibidez, aterpean egotean larritasuna sentitzen badu: aterpera hurbilpen progresiboa (Esarte, 2014). • Jokabide baten agerpena sustatzeko teknika aproposak: <ul style="list-style-type: none"> - Errefortzu positiboa: teknika aproposena da haurra motibatuzeko eta ziurtasuna transmititzeko - Moldeamendua: esango diogu zein den lortu 	<ul style="list-style-type: none"> • Presioaren aurrean asertibitatea erabiltzen trebatu, jarrera aktiboegia edo pasiboegia izatea ekiditen delarik. • Faktore estresore eta larritasuna sortzen duten egoeren aurrean estrategia ezberdinak konbinatu: <ul style="list-style-type: none"> - Egoera kontrolatzeko ordezkotzako aukerak bilatu: lagunei edo irakasleari laguntza eskatu, ariketa bertan behera utzi edo marrazki bat egin. - Egoerari aurre egin: mehatxua ezabatzeko ordezkotzako aukerak bilatzen lagundu eta estresari erabilpena eman larritasuna sortzen duten egoeren aurrean kontu handiz ibiltzeko, arriskuak identifikatuz. - Egoera erlatibizatzen lagundu lasaitzen lortzeko. - Desensibilizazioa: estresa edo larritasuna

	<p>nahi dugun jokabidea edo helburua. Kasu honetan, helburua larritasuna sortzen duen egoeran lasai egotea izango da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kitzikatzaileak: helburu hori lortzeko hitzeko kitzikatzaileak, inguruko kitzikatzaileak eta kitzikatzaile fisikoak erabiliko ditugu. - Kateatzea: lortu nahi dugun helburua xede txikiagotan zatitu. • Jokabide bat murrizteko teknika egokiak <ul style="list-style-type: none"> - Kontingentzia sistemak: fitxen ekonomia. Helburua: beldurra sentitzeari uztea, fitxen bidez indartuko dugu. - Jokabide ezegokiak agertzen badira (adibidez, lagun bat jo): errefortzu negatiboa, denbora kanpoan eta gainzuzenketa. 	<p>kontrolatzen eta eguneroko ekintzekin jarraitzen ikasi.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pentsatzeko beste moduetan trebatu <ul style="list-style-type: none"> - Atribuzio errealak. - Pentsamendu negatiboak agertzean alde batera uzten trebatu. - Baieztapen positiboak lortzen trebatu. • Emozioak identifikatzen, adierazten eta erregulatzen trebatu: <ul style="list-style-type: none"> - Sentimenduen intentsitate maila lantzeko ariketak. - Sentimenduak eta gertaerak erlazionatzeko ariketak. - Gertaerak kanpoko ikuspegitik lantzeko ariketak. • Bestetik, larritasuna lantzeko ekintza fisikoa eskatzen duten ariketa ezberdinak konbinatuko ditugu: <ul style="list-style-type: none"> - Larritasuna eta estresaren sintoma fisikoak baretzeko eta egoeraz distraitzeko. - Erlaxazioa lantzeko ariketak egin, taldeka: <ul style="list-style-type: none"> - Arnasketa diafragmatikoa
--	---	---

		<ul style="list-style-type: none"> - Musika lasaia entzun - Bikoteka masajeak eman - Erlaxazio muskularra
Mutismo selektiboa	<ul style="list-style-type: none"> • Gelan jarrera negatiboa eta gehiegizko atzera egitea eragiten du • Gehiegizko presioaren ondorioz hartutako jarrera bada, eskakizun maila gutxitu behar dugu. • Analisi funtzionala egin, aztertuz haurrak nola (zein testuinguru eta baldintzetan) eta zergatik duen mutismo selektiboa. Jatorria identifikatu eta eragin. • Egoera beldurgarriei gerturatze graduala. • Kontaktu sozialak areagotu. • Familia informatu detektatu denaz eta kolaborazioa eskaini eta eskatu (Esarte, 2014). • Jokabide baten agerpena sustatzeko teknika aproposak: <ul style="list-style-type: none"> - Errefortzu positiboa: azken jokabiderako edozein gerturatzea positiboki indartuko dugu, haurra motibatuz eta ziurtasuna 	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko emozioak identifikatu eta erregulatzeko estrategiak garatu, adibidez, distrakzioa edo erlaxazioa. • Hitz egiteko erosoak diren egoerak sortu: talde txikiak, heldu ezagunak edo guraso baten presentzia proposatu. • Hurbiltasuna, afektibitatea erakutsi haurrari irakaslearengan konfiantza izateko. • Trebea den horretan eredu gisa erabili autoestimua lantzeko, adibidez, musika, mugimendua edo marrazkiak. • Eroso sentitzen den egoeretan hitz egitea sustatu. Adibidez, asanbladan guztiekin batera dagoenean lasaiago sentitzen bada, egoera hori probestu. • Eman beharreko aldaketen berri eman: txoko aldaketa, patiora joatean, egoera horietara emozionalki prestatzeko. • Komunikazioa progresiboki landu:

	<p>transmititzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Moldeamendua: lortu nahi dugun jokabidea edo helburua zein den esango diogu. Kasu honetan, helburua hitzez komunikatzea da. - Kitzikatzaileak: helburu hori lortzeko hitzezko kitzikatzaleak, inguruko kitzikatzaileak eta kitzikatzaile fisikoak erabiliko ditugu. <ul style="list-style-type: none"> • Jokabidea murrizteko teknika aproposak: <ul style="list-style-type: none"> - Desagertzea: hitz egitearen ordezt erabiltzen duen komunikazio estiloari ez diogu arreta eskainiko. Hau da, arreta guztiz kenduko diogu, errefortzurik erabili gabe, jarrera hori aurrera eramatera uzten dion arte. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hasieran: hitz egitea ordezt, adierazteko beste metodoak proposatu: keinuak, abestea, mugimendua edo irudiak erabiliz. - Komunikatzen hasten den heinean hitzezko komunikazioa lortzen saiatu, modu progresiboan. <ul style="list-style-type: none"> • Harreman sozialetan trebatu <ul style="list-style-type: none"> - Asanbladan: guztioi galdera bat planteatu eta banaka galdetu, berari barne. - Makinista denean, bere interesekoa den gai batez guztion artean hitz egin berari parte hartzeko aukera eskainiz. Kanta bat abesteko proposatu. - Musika erabili hurren arteko harremana sustatzeko, interakzioa eskatzen duten abesti zehatzak erabiliz. - Talde-dantzak edo ariketak erabili kideekin elkarreragina sustatzeko.
--	---	---

<p>Depresioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gehiegizko tristezia sentitzearen jatorria identifikatu behar dugu, behaketa egiten, galderak egiten eta gurasoekin hitz egiten. • Autoestimua landu. • Autokontrola. • Gizarte trebetasunetan ikaskuntza (Esarte, 2014). • Jokabide baten agerpena sustatzeko teknikak: <ul style="list-style-type: none"> - Errefortzu positiboa: pentsamendu positiboen agerpena eta atribuzio kausal errealak egitea positiboki indartuko dugu. - Kitzikatzailea: hitzeko eta keinuzko kitzikatzaileak erabiliko ditugu haurrari atribuzio kausal errealak egiten eta positiboki pentsatzen laguntzeko. - Modelamendua: lortu nahi dugun jokabidea edo helburua zein den esango diogu. • Atribuzio irrealak eta pentsamendu negatiboak murrizteko teknika egokiak: <ul style="list-style-type: none"> - Kontingentzia sistemak: fitxen ekonomia. 	<ul style="list-style-type: none"> • Depresioa duten hurrek atribuzio kausal irrealak egiten dituzte: <ul style="list-style-type: none"> - Akatsak: barne faktoreen ondorioz: euren errua izan dira. - Lorpenak kanpo faktore bati esker lortuak. • Pentsatzeko modu ezberdinetan trebatu <ul style="list-style-type: none"> - Atribuzio errealak. - Pentsamendu negatiboak agertzean alde batera uzten trebatu. - Baieztapen positiboak lortzen trebatu. • Emozioak identifikatzen, adierazten eta erregulatzen trebatu: <ul style="list-style-type: none"> - Sentimenduen graduazioa lantzeko ariketak. - Sentimenduak eta gertaerak erlazionatzeko ariketak. - Gertaerak kanpoko ikuspegitik lantzeko ariketak. • Autoestimua eta irudi pertsonala landu: <ul style="list-style-type: none"> - Autokontzeptua, konfiantza, norbere burua onartzea, itxaropen errealistak bere buruarekiko.
------------------	---	--

	<p>Jokabidea zehaztuta, fitxen bidez indartuko dugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jokatibide ezegokiak agertzen badira (adibidez, lagun bat jo): errefortzu negatiboa erabiliko dugu. Teknika intrusiboen erabilera ekidin behar dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eredu gisa erabili gelan trebea den horretan. - Motibazioa landu: ongi egiten duena goraiatu. • Ariketa fisikoak garuna aktibatzeke. • Afektibitatea erakutsi sintonia emozionala lantzeko. • Harreman sozialetan trebatu taldean onartua izateke.
--	---	--

4. ARRAZOIZKO PLANTEAMENDUAREN INPLIKAZIOAK ESKOLAN

Lanean zehar jorratutako teoria erabiliz jokabide arazoei aurre egiteko proposamen bat aurrera eraman dut. Proposamen hori adimen emozionala oinarritzat hartzeak hainbat inplikazio eragiten ditu. Atal honetan diseinatutako protokoloa eta plangintzak eskoletan duen eragina azalduko dut. Ondoren, praktikan egon naizen bitartean eskolan jokabide arazoetan esku-hartzeko erabilitako metodologia eta estrategiak azalduko ditut, horien analisi kritikoa eginez.

4.1 Arrazoizko planteamenduaren eragina eskolan

Proposaturiko plangintzak eragina du eskolan, hainbat mailatan. Horregatik, jarraiki esparru ezberdinetan duen eragin soziala, eragin psikologikoa eta eragin pedagogikoa azalduko ditut.

4.1.1 Eragin soziala

Eragin sozialari dagokionez, jokabide arazoetan adimen emozionala, teknika psikologikoak eta inklusio ikuspegia kontuan hartzeak hainbat onura ekartzen dizkigu. Izan ere, adimen emozionala lantzeak, hasteko emozio propioak ulertzen laguntzen gaitu. Guk sentitzen duguna ulertzean, emozioak zerbait positiboa lortzera bideratzea errazten du, adibidez, helburu bat lortzen lagundu edo harreman sozialetan eraginkorragoa izatea. Haur Hezkuntzan jokabide arazoak dituzten haurrekin esku-hartzeko teknika psikologikoak eta hezkuntza emozionala lantzean, ikasle horien jokabidearen jatorrian eragiten da, adibidez, emozio pertsonalak erregulatuz eta jokabide ezegokiei ordezeko aukerak bilatzen lagunduz. Hezkuntza emozionalaren bidez, ikasleak emozionalki osasuntsu egotea lortzen dugu, oreka emozionala landuz. Horri esker, gainontzeko ikasleekin emozionalki orekatuak diren estrategiak erabiliz erlazionatzea sustatzen dugu eta lagunengandik onartua izateko probabilitatea handiagoa izango da.

Horrela ba, adimen emozionala lantzeak talde kohesioa sustatzen du eta harreman sozialak eta komunikazio trebetasunak hobetzen ditu, sintonia emozionala eta harreman sendo eta esanguratsuak sortzen direlarik. Plangintzan talde kohesioa

sustatzean, ikasle bakoitzak bere trebetasunak kontuan hartuta gelara eskaini ahal diona identifikatzen du eta ekintzetan parte hartzen du, talde sentimendua garatzen duelarik. Guzti horri esker, gelan ikasleen arteko desberdintasunak murrizten dira, baita ondoko lagunaren ezberdintasunak onartu ere. Bestetik, gurasoekin harreman konstantea mantentzeak gizarte sistemarekin kontaktua areagotzea sustatzen du.

Ikasle guztiek gelan bere tokia aurkitzeak gizarte ezberdintasunak murrizten ditu eta eskusio arriskua gutxitzen du, hortaz, sozializazioa errazten du. Etorkizunean gizartean toki bat aurkitzeko, lanpostu duina lortzeko eta lanpostu horretako kideekin harreman eraginkorrak ezartzeko probabilitatea handitzen da.

4.1.2 Eragin psikologikoa

Bestetik, jokabide arazoetan eragiteko eta taldean kohesioa sustatzeko adimen emozionala lantzeak psikologikoki eragin esanguratsua du. Izan ere, gelan gatazkak suertatzen direnean ikasleek konponbideak aurkitzea eta taldeka lan egiteak giro lasaia sortzen du, erosotasunez lan egitea eta distentsio emozionala lortzen delarik. Estresa gutxitzen da eta bakoitzak bere burua eta beste lagunak motibatze gaitasuna garatzen du. Agresibitate maila ere jaisten da, orokorrean emozio bizi guztiak kontrolatzea lortzen da, hortaz, bakoitzak bere burua kontrolatzeko gai izatea lortzen da. Aipatutako guztiari esker egonkortasun emozionala lortzen da, hortaz, egonkortasun eta osasun psikologikoa. Horri esker, etorkizunean nahaste emozionalak edo arazo psikologikoak pairatzeko probabilitatea gutxitzen da.

Bestalde, irakasleak adimen emozionala garatzeak ere eragin positiboa izango du haurren egonkortasun psikologikoan. Haurrak ez dira epaituta sentitzen eta euren proposamenak azaltzeko eta emozioak erakusteko askatasun osoa dutela sentitzen dute. Horrez gain, irakasleak entzute aktiboa eta enpatia erabiltzeak haurrek beraien arazoak entzuten eta ulertzen ditugula sentitzea eragiten du, lasaitasuna sentituz. Arau argiak ezartzean, haurrek ongi ezagutzen dituzte gelako limiteak eta horrek ere psikologikoki eragin positiboa dute, arau horiek ez betetzearen ondorioak ezagutzen dituztelako eta horrek egonkortasun psikologikoa errazten du. Bukatzeko, irakasleak bere adimen emozional propioa hobetzeari esker emozio propioak eta ikasleen emozioak ulertzean trebatzen da eta horrek ikasleekin indibidualki harreman

sendoagoak ezartzen laguntzen du, lotura emozionala lortuz. Horrek ere eragin positiboa izango du haurraren ezaugarri psikologikoetan. Lotura emozionala garatzeak haurrak irakaslea errespetatzea, eredu sendo bezala ikustea eta afektibitatez erlazionatzea eragingo du, baita haurrak ikustea irakaslea beti laguntzeko prest egongo dela, konfiantza sortuz.

4.1.3 Eragin pedagogikoa

Eragin pedagogikoarekin jarraitzeko, esan beharra dago lehen esan dugun bezala adimen emozionala lantzeak irakaslearen papera aberasten duela, horrek haurraren garapenean eragin zuzena duelarik. Lan honetan diseinatutako proposamenean adimen anitzak lantzen dira, hortaz, ikasteko modu anitzak ere kontuan hartzen dira. Guzti hori jarduera didaktikoan islatzen da, ikasteko estrategia ezberdinak integratzen direlako, bakoitzak dakien moduan ikastea sustatuz. Horretarako, proposatutako estrategien barne antzerkia, jolas sinbolikoa, ipuinen irakurketa, musikaren erabilera eta mugimendua integratzen dira, ikasle guztien ikaskuntza estilora ailegatzeko.

Bestetik, material anitzak eskaintzeak informazioa edo transmititu nahi dugun mezua hobe ulertzea errazten du, entzumenezko eta ikusmenezko trebeziak erabiltzea sustatzen delarik. Hau guztia kontuan hartuz, ikaskuntza estilo ezberdinak kontuan hartzea eta material, metodologia eta teknika ezberdinak erabiltzeak ikasle guztiak eroso sentitzea, psikologikoki orekatuta egotea, bere gaitasunak garatzea eta guztiek curriculumeko helburu eta edukietara iristea bermatzen du.

4.2 Egiaztatze enpirikoa

Atal honetan praktikan ikusi dudana hitz egingo dut. Praktikan 3 urteko 19 ikasleko gelan egon nintzen eta esan beharra dago oso gela berezia zela. Izan ere, gatazka asko sortzen ziren, jokabide arazoak zituzten haurrak eta erlazionatzeko arazoak zituzten hainbat haur zeudelako, baita orokorrean ikasleen izaeragatik, izan ere, oso mugituak eta azkarrak ziren, baina ikasteko gogo handia zuten ere. Hau guztia kontuan hartuta, irakaslearen lana talde kohesioa lortzeko, elkar onartzeko eta gatazka

eta jokabide arazoei aurre egiteko oso konplexua izan zen, denbora asko igaro zen guzti hori lortu arte.

Irakasleak jokabide arazoetan esku-hartzeko erabiltzen zituen teknikez hitz egingo dut. Haurrek ekintza bat areagotu edo errepikatzea nahi zuenean errefortzu positiboa eta teknika kitzikatzailea erabiltzen zituen. Ordea, jokabide bat murriztu edo ezabatu nahi duenean beste teknika batzuk erabiltzen zituen, hots, errefortzu negatiboa, desagertzea eta denbora kanpoan. Ahal zen heinean, irakaslea erantzuna haurrengandik abiatzea saiatzzen zen eta metodo intrusiboak erabiltzea ekiditen zuen. Hala ere, zenbait kasuetan beharrezkoa zen teknika intrusiboagoak erabiltzea, adibidez, denbora kanpoan izeneko teknika, lehen aipatu dugun bezala. Bukatzeko, esan beharra dago irakasleak erabiltzen zituen teknikak eraginkorrak izan zirela, haurren jokabide arazoetan eragitea lortu zuelako. Beraz, praktikan egon nintzenean asko ikasi nuen teknika psikologikoen erabileraren inguruan.

Emozioen kudeaketari dagokionez, irakasleak aldioro bere emozioak ikasleen aurrean adierazten zituen eta asanbladan hurrei bere esperientziez hitz egiteko aukera ematen zien. Asanbladan, eguneroko esperientziez hitz egitean haserrea, gurasoekiko maitasuna eta poza bezalako emozioak azaltzen ziren, eta haurrak oso gustura sentitzen ziren haiek esperientziak kontatzean eta besteenak entzutean.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, irakasle interbentzioa orokorrean oso prozesu konplexua dela ikusi ahal izan dut. Gelako ikasleen ezaugarriak kontuan hartu behar dira, ikasle bakoitza ezagutu, bakoitzari behar duen hori eskaini, ikasleekin lotura emozionala sortu eta talde giro atsegina sortu. Horrez gain, ikasleentzat onuragarrienak diren erabakiak hartzea askotan zaila da, denbora eskatzen du jokatzeko modu egokiena aurkitzea eta ez dugu beti arrakasta lortuko. Kontuan hartu behar dugu erabiltzen ditugun teknikak askotan ez dituztela espero genituen emaitzak emango, beraz, esku-hartzean suertatzen diren arrakasta eta arazoak ere kudeatzen ikastea ezinbestekoa da.

Bukatzeko, practicumean bizi dudana aztertu ondoren ikusi dut proiektu honetan lantzen diren atalak oso garrantzitsuak direla haurren ikaskuntza prozesuan, baita hezkuntza praktika eraginkorra lortzeko eta jokabide arazoak dituzten haurrekin esku-hartzeko prozesuan ere, batez ere emozioen kudeaketa, harreman sozialak, komunikazio trebetasunak eta esku-hartze goiztiarra.

Eskolako protokoloa eta plangintzaren diseinua jokabide arazoetan esku-hartzeko

ONDORIOAK

Lan honetan aurrera eraman dudan proposamenean protokolo bat diseinatu dut, hezkuntza legeetan protokolorik eskaintzen ez denez gero hutsune hori betetzeko beharra ikusi dudalako. Beraz, protokolo bat eskola guztientzat diseinatzeak hainbat ondorio eragiten ditu. Lehenik, aniztasunari erantzuteko aurrera eraman beharreko pausuk eskola guztietan orokorrak dira eta horri esker ez dira esku-hartze ezberdintasunik sortzen, eskola guztietan norabide berdina jarraituz forma eraginkorrean eragiten delarik. Bigarrenik, pausoak aldez aurretik zehaztuta egoteak esku-hartze prozesua errazten du, denbora aurrezten du eta esku-hartze plangintza egiteko denbora gehiago uzten du. Dena den, pausoek ez dute zertan eskola guztietan berdinak izan, nire protokolo diseinua oinarrizkoa da eta pausuen ordena errespetatuz gero eskola bakoitzean osatu daiteke pausu horietan aurrera eraman daitezkeen ekintzak txertatuz.

Bestetik, jokabide arazoei aurre egiteko adimen anitzak kontuan hartzea eta zehazki teknika psikologikoak osatzeko adimen emozionala lantzearen ondorioz esku-hartze eraginkorragoa lortzen da, testuinguru, gaitasun, material, metodologia eta ikaskuntza estilo ezberdinak integratzen direlako. Emozioak lantzeari esker, lotura emozionalak ezartzen dira irakasle eta ikasle nahiz ikasleen artean eta horrek talde kohesioa egotea eta taldeko sentimendua garatzea eragiten du. Horri esker, jokabide arazoak edota beste zailtasunak dituzten haurren eskusioa saihesten da, baita eskola porrota ere.

Hau guztia kontutan hartua, Gradu Amaierako Lan honek gaur egungo hezkuntza sisteman aurkitu ditudan zenbait hutsune betetzeko eta ondorioz hezkuntza sistemaren eraginkortasuna hobetzeko balio izan duela ondorioztatzen dut. Hala ere, lan hau bukatu ondoren hainbat galdera planteatu ditut nire buruan: benetan erabilgarria da eskoletan egin dudan proposamena? Nola hobetu daiteke? Zein teoriak erabil ditzakegu proposamena beste ikuspuntu ezberdinen ekarpenen bidez osatzeko? Zer egin behar da azaldutako teknika psikologikoak eta adimen emozionala lantzeko estrategiak aplikatu ondoren? Zer egingo genuke haurren hezkuntza prozesuan positiboki eragitea edo emaitzak hobetzea lortuko ez bagenu?

Argi dago proposamen hau hezkuntza emozionala eskoletan lantzeko prozesuaren abiapuntua besterik ez dela eta lan handia dagoela aurretik. Proposamen hau hobetzeko, beharrezkoa izango da Hezkuntza Premia Berezi guztiak kontuan hartzen dituzten teknika psikologikoak eta adimen emozionala lantzeko estrategiak jorratzea, taula formatuan prestatua, protokolora txertatzeko. Proposamen hori osatzeko prozesua luzea da, informazio asko eskuratzea eta kudeatzea eskatzen du. Bestetik, atzera begiratuz gero, lanaren hasieran plazaratutako galderei erantzuna eman zaiela eta aipatutako helburuak bete direla ondorioztatzen da.

Bukatzeko, lanari buruzko iritzia emango dut. Gradu Amaierako Lana egitean irakasleok hezkuntza emozionala landu baino lehen gure adimen emozionala hobetu behar dugula konturatu naiz. Nire kasuan zehazki, aktiboki entzuten eta haurren emozioak ulertzen trebea naizela baina emozio propioen kudeaketan oraindik ere bide luzea gelditzen zaidala ondorioztatu dut. Izan ere, nire emozioak identifikatzen eta erregulatzen trebea naiz, baina etorkizunerako helburua nire emozioak kudeatzean haurrengan eragin positiboa lortzea da. Hori lortzeko, tresna aproposenak musika, ipuinak eta antzerkia direla uste dut. Haurrekin bizipenak konpartitzea eta emozioak elkarrekin bizitzea oso garrantzitsua da, haurrekin lotura emozionala ezartzea ezinbestekoa delako, bereziki jokabide arazoak dituzten haurren kasuan.

Adimen emozionalaz gain, irakasleok ere, pertsonak garen heinean, beste esparruetan trebeagoak edo traketsagoak izango gara, horregatik, trebeak garen gaitasunak probesten saiatu behar gara, gure hezkuntza praktikan integratuz, baita traketsak garen gaitasun horiek hobetzea ere gure praktika eraginkorragoa izateko. Zalantzarik gabe, ideia garrantzitsuena ikasleen egotea disfrutatuz eta bizipen esanguratsuak sustatuz irakastea da, baita afektibitateari eta eguneroko ekintzetan bizitako emozioei toki bat emanez.

Lanarekin bukatzeko, proposamen hau eskoletan hezkuntza ekintza probesteko baliogarria izatea espero dut. Bestetik, etorkizunean hezkuntza legeetan aniztasunari erantzuna emateari garrantzi gehiago ematea ezinbestekotzat jotzen dut, baita Hezkuntza Premia Bereziei ahalik eta modu eraginkorrean esku-hartzeko neurri gehiago hartzea ere.

Eskolako protokoloa eta plangintzaren diseinua jokabide arazoetan esku-hartzeko

Estatu mailan baita Nafarroan ere ezarriko den LOMCE legeak laguntza zerbitzuen murrizketa eragingo du eta horrek atzerapauso bat eragiten duela uste dut. Bestetik, lege horretan ikasgai instrumentalei, hau da, matematika eta hizkuntzei, garrantzi gehiago ematen zaie, saio kopurua handituz. Erabaki hau onuragarria al da ikasle guztientzat? Lege honi esker ikasleen arteko ezberdintasunak areagotzen dira? Zer gertatuko da adimen anitzen eta adimen emozionalaren lanketarekin? Zein da emozioen eta gatazken lanketari emango zaien tokia? Lege horretan hartzen diren neurriekin gerta daiteke lan honetan aipatutako ideiak bertan behera gelditzea.

Beraz, Nafar Gobernuak hezkuntza lege hori hobetzeko proposamenak aurkeztea espero dut, gaur egun errealitate bat den aniztasunari eskolatik eman beharreko erantzuna ez zapaltzeko. Irakasleok legeen hobekuntza prozesuan parte-hartzeko eta eskolan hezkuntza praktika hobetzeko prest egongo gara.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Arricibita, I. (2014). *Laguntza eta ikerketa zerbitzuak eskola inklusiboan*. Iruñea: UPNA.
- Echeita, G. (2007). *Educación para la inclusión o educación sin exclusiones*. Madrid: Narcea, 75-111.
- Esarte, S. (2014). *Behar psikologikoak eskolan*. Iruñea: UPNA.
- Gardner, H. (1983). *Inteligencias múltiples. La teoría en la práctica*. Barcelona: Paidós.
- Iriarte, C.; Alonso-Gancedo, N. (2008). *Competencia emocional. Intervención psicopedagógica para su desarrollo a través de programas*. Navarra: Ediciones Eunate, 75-96.
- Iza, L. (2013). *Eskola inklusiborako proposamen pedagogikoak*. Iruñea: UPNA.
- Labrador, F. J. (2008). *Técnicas de modificación de conducta*. Madrid: Pirámide.
- Martin, D.; Boeck, K. (2000). *¿Qué es inteligencia emocional? Cómo lograr que las emociones determinen nuestro triunfo en todos los ámbitos de la vida*. Madrid: Edaf.
- Méndez, F. X.; Olivares, J. (2001). *Técnicas de modificación de conducta*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- Muñoz, O.; Martínez de Urmeneta, I. (2012). *Gizarte, familia eta eskola inklusiboa*. Iruñea: UPNA.
- Rigau-Ratera, E.; García-Nonell, C.; Artigas-Pallarés, J. (2006). Tratamiento del trastorno de oposición desafiante. *Revista de neurología*, 83-88, 42 (Supl.2).
- Segura, M. (2005). *Enseñar a convivir no es tan difícil: para quienes no saben qué hacer con sus hijos, o con sus alumnos*. Bilbao: Desclée de Brouwer, 20-24.
- Trebol, F. (2010). *Hezkuntza Bereziaren oinarri psikologikoak. Aniztasunaren trataera*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 96-112.

Trebol, F. (2012). *Aniztasuna eta erantzun psikopedagogikoa*. Iruñea: UPNA.

Trebol, F. (2014). *Eskolan esku-hartzeko teknika psikologikoak*. Iruñea: UPNA.

ERANSKINAK

I. Eranskina:

DSM-IV-TR-REN AFN-H IRIZPIDEAK/SINTOMAK

AFN-H arretagabea diagnostikatzeko irizpideak:

1. Maiz, haurrak ez du nahiko arretarik jartzen xehetasunetan edo akatsak izaten ditu eskolako zereginetan, lanean edo bestelako jardueretan.
2. Maiz, arretari eusteko zailtasunak izaten ditu zereginetan edo jarduera ludikoetan.
3. Maiz, badirudi ez duela entzuten zuzenean hitz egiten zaionean.
4. Maiz, ez du jarraibiderik betetzen eta ez ditu bukatzen eskolako zereginak, mandatuak edo lantokiko betebeharrak.
5. Maiz, zailtasunak izaten ditu zereginak eta jarduerak antolatzeko.
6. Maiz, eginahal iraunkorra eskatzen duten zereginak saihesten ditu, horiekin nahigabetzen da.
7. Maiz, zereginetarako nahiz jardueretarako behar dituen gauzak galtzen ditu.
8. Maiz, aise distraitzen da garrantzirik gabeko estimuluekin.
9. Maiz, zabarra izaten da eguneroko jardueretan.

AFN-H hiperaktibo-inpulsiboa diagnostikatzeko irizpideak:

Hiperaktibitatea:

1. Maiz, eskuak eta oinak gehiegi mugitzen ditu, edo eserlekuan gehiegi mugitzen da.
2. Maiz, aulkitik altxatzen da gelan, edo eserita egon beharreko beste egoera batzuetan.
3. Maiz, gehiegi ibiltzen da lasterka edo saltoka, desegokiak diren egoeretan.
4. Maiz, zailtasunak izaten ditu lasai jolasteko edo aisialdiko jarduerak egiteko.
5. Maiz, martxan egoten da edo motor bat duela dirudi.
6. Maiz, gehiegi hitz egiten du.

Impulsibitatea:

1. Maiz, erantzuna galdera bukatu baino lehen botatzen du.
2. Maiz, bere txanda itxoiteko zailtasunak izaten ditu
3. Maiz, besteei eten edo traba egiten die (Esarte, 2014; Iza, 2013).

II. Eranskina

JOKABIDE KONTRATUAREN ADIBIDEA

Kontratua

Data:

Ni Unai ados nago erantzukizun gehiago hartzeko helburuarekin egindako kontratuarekin. Horrela, haserrea kontrolatzera eta etxeko lanak egitera konprometitzen naiz.

Ni, Maria, ados nago Unai saritzearekin, etxeko lanak ongi egiten dituenean eta haserrea kontrolatzea lortzen ez duenean. Bere eginbeharrak egiten ez dituenean kritika ez egitera konprometitzen naiz eta erregistroan apuntatzera konprometitzen naiz.

Sinadurak:

(Esarte, 2014).

III. Eranskina

HEZKUNTZA LAGUNTZA UNITATEKO BILERA AKTA

Data:	Tokia:
Parte-hartzaileak :	
BILERAREN ZERGATIA	
JORRATUTAKO GAIAK	
Adibidez: Aniztasun Planaren diseinua	
ADOSTUTAKOAK/ ONDORIOAK	
EGIN BEHARREKOA	

IV. Eranskina

GURASOEK BAIMENA EMATEKO AGIRIA

Agiri honen bidez, ikaslearen gurasoak garelarik, gure seme-alabaren ikaskuntza prozesua hobetzeko pasa beharreko frogak egiteko baimena ematen diogu eskolari. Onartzen dugu:

- Froga horiek konfidentzialak eta pertsonalak izango direla.
- Frogetatik lortutako datuak ezagutzera emango direla soilik haurraren hezkuntza prozesuan inplikaturik dauden profesionalen artean.
- Eskolako profesional guztiek frogetatik lortutako informazioaren izaera pribatua errespetatuko dutelako konpromisoa.

Mediante este documento nosotros damos permiso a la escuela para realizar las pruebas que sean necesarias para mejorar el proceso de aprendizaje de nuestro hijo/a.

Firmando este documento aceptamos lo siguiente:

- Las pruebas realizadas son confidenciales y personales.
- Los datos obtenidos a través de las pruebas sólo serán facilitados a los profesionales que estén implicados/as en el proceso educativo del alumno/a.
- Todos aquellos profesionales se comprometen a respetar el carácter privado de las pruebas realizadas.

Datuak/ Datos

Ama/Madre:

Aita/ Padre:

Seme-alaba/Hijo/a:

Amaren sinadura/Firma de la madre:

Aitaren sinadura/ Firma del padre:

V. Eranskina

BEHAKETA ERREGISTRO AKTA

Data: _____ Hiruhilekoa: _____ Ikaslearen izena: _____ Maila: _____
Maila curricularra neurtzeko taularen emaitzak
Aurreko ikasturteetan gainditu gabe dauden helburuak
Aurreko txostenen informazio deigarria
Behaketa zuzenean lortutako informazio deigarria
- (Eguna/testuingurua/lantzen ari diren ariketa): - (Eguna/testuingurua/lantzen ari diren ariketa):
Ondorioak:

VI. Eranskina

Hurrengo atalean eskolako profesionalen arteko txostenaren adibide bat agertzen da. Esan beharra dago txostenaren egitura apunteetatik hartua dela, azaltzen zaigun ereduak, ordea, nik prestatu dut. Bestalde, funtsezkoa da aipatzea datuak ez direla errealak:

PROFESIONALEN ARTEKO TXOSTENA (Trebol, 2012):

1. GERTAERAK EDO AURRETIKOAK : Egoera deskribatzen da

a) Datu soziodemografikoak.

- Ikastetxea: Hegoalde ikastola.
- Ikastetxearen kokapena.
- Kurtsoa. 1. kurtsoa (3-4).
- Ikaslearen gela eta mahaia: 1.A.
- Tutorea: Mertxe Aranguren.

b) Ikaslearen datu pertsonalak.

- Ikaslearen izen-abizenak: Naiara Rodriguez.
- Gurasoak
 - Izen-abizenak: Maite Garcia, Fernando Rodriguez.
 - Estatus afektiboa: ezkondata.
 - Lanbidea: biak irakasleak.
 - Inplikazio maila eskolarekiko: altua.
- Bizitokia.
 - Non bizi den: Azpilagaña.
 - Norekin bizi den: Guraso eta anai jaioberriarekin.

c) Datu akademikoak.

- Zentroaren antolaketa: A, G eta D ereduak.
- Zenbat irakaslek lan egiten duten berarekin: tutorea, orientatzailea, PT-a eta laguntza irakaslea.
- Egindako frogak : maila curricularra neurtzeko taulak, Bender (begi esku koordinazioa, idazketa), Boe (kontzeptuak lantzeko) eta Rebelsa (pertzepzio bisuala lantzeko)
- Hartutako neurriak: material egokitzapena, PT edo orientatzailearekin kanpora ateratzea edo haiek klasean sartzea, eta gurasoei kanpoko erakunde baten laguntza gomendatzea.
- Ikaslearen harreman sozialak eta integrazio maila.
- Klasea: lagunekin ibiltzeko ez ditu arazorik baino ez da gai arazoak konpontzeko, emozioak askotan ez dituelako erakusten.
- Patioa: sokarekin jolasten du eta lagunekin ibiltzen da. Beti urduri dago, ez da gai egoera konkretu batean erlaxatzeko.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: joaten denean ez da inongo arazorik egoten baino behin ez zen txangora joan gaixorik zegoelako.
- Txostenaren zergatia.
- Nork egiten duen: irakasleak/tutoreak.
- Egitea nork eskatu duen: PTak eta orientatzaileak.
- Norentzat den txostena: guraso eta orientatzailearentzat.
- Txostenaren arrazoia: maila curricularreko taulak pasa ondoren item askotan bere adinekoa baina maila baxuagoa duela aztertu dugu.

2. BALORAZIOA

- a) Aurreko datuen balorazioa: 4 froga pasa ditugu eta soilik batean antzeman dugu arazoak dituela (maila curricularreko tauletan). Beraz, jarraipena egingo diogu, esku-hartzea egin ordez, beste 3 frogetan emaitza onak lortu dituelako.
- b) Ikasleari pasa zaizkion frogen emaitzak: maila curricularra neurtzeko taularen zenbait itemetan gaizki dabil bere adinekiko baxuak dira:

- Arazoen aurrean bere burua defendatzen daki : ez.
- Ez du irakaslearen laguntza eskatzen : ohi baino gehiago.
- Ondo onartzen du bere urteak ospatzean “zorionak zuri” abestia: ez.
- Mozorrotu eta besteen aurrean antzezteko lotsarik ez du : ez.
- Beste hizkuntzak ahoz erabiltzen ditu komunikatzeko: laguntzarekin.

Beste frogen emaitzak normalak dira.

3. ONDORIOA – PROPOSAMENA

Emaitza baxua duen itemak emozioekin eta nortasunaren garapenarekin zerikusia daukate, beraz hori da klasean gehiago landuko duguna, eta beharrezkoa balitz, orientatzailea edo PTarekin. Bestalde, etxean egiten duena jarraituko dugu, baita klasean egiten duena ere, baino ez dugu egokitzapen curricularrik egingo, item berdinak landuko ditugulako. Materialen egokitzapena egingo da emozioak lantzeko, beste frogetan ateratako emaitzak normalak direlako. Ikusten badugu arazo gehiago aurkezten dituela (froga gehiagotan emaitza ohi baino baxuagoak izatea edo ekzemak) pediatriarekin elkartzea eskatuko dugu.

Etxeko jarrerari dagokionez, gurasoei alde emozionala lantzea proposatuko diegu, berarekin denbora gehiago igarotzen saiatuz, elikadura ona bermatuz, errutinak landu (loaldia, adibidez) eta estresa eta gehiegizko kontrola ekidin (Trebol, 2012).

VII. Eranskina

GURASOEKIN BILERA PRESTATZEKO FITXA

BILERAREN DATUAK		
Ikaslearen izen-abizenak:		
Data:	Tokia:	Bileraren iraupena:
Parte-hartzaileak	Ama _____	Aita _____
	Irakaslea _____	Espezialista/k _____
BILERAREN ZERGATIA		
Gurasoei bileraren zergatia argi azaldu.		
JORRATUKO DIREN GAIAK		
Aipatu behar ditugun gaien eskema egin.		
Denbora kontrolatu, utzi 10 minutu gurasoak entzuteko, ondorioak ateratzeko eta egin beharrekoak adosteko.		
PROPOSAMENA		
-IRAKASLEAK egin beharrekoak:		
-GURASOEK egin beharrekoak:		
-IKASLEAK egin beharrekoak:		
HURRENGO BILERA		
Data:		
Zergatia:		
Jorratuko diren puntuak:		

(Trebol, 2012).

Maite Vélez Yoldi

VIII. Eranskina**GURASO BILERA AKTA**

BILERAREN DATUAK		
Ikaslearen izen-abizenak:		
Data:	Tokia:	Bileraren iraupen totala:
Parte-hartzaileak	Ama _____	Aita _____
	Irakaslea _____	Espezialista/k _____
JORRATU DIREN GAIEN LABURPENA		
GURASOEN AIPATUTAKO IDEIEN LABURPENA		
GURASOEN ADOSTUTAKO IDEIAK		
ONDORIOAK		
Adibidez: gurasoen jarreraren analisia, etxeko testuinguruaren analisia, ezberdintasunak eta berdintasunak.		

IX. Eranskina

ESKU-HARTZE PROPOSAMENAREN JARRAIPENA

<p>Ikaslea:</p> <p>Maila:</p>
<p>Hiruhilekoa:</p> <p>Data:</p>
<p>Detektatu diren premiak (aukeratu dagokiona):</p> <ul style="list-style-type: none">- Irakurketa-idazketa prozesuarekin erlazionatuta dauden arazoak.- Atzerapen curricularra.- Jokabidearekin erlazionaturiko arazoak.- Garapenaren Nahaste Orokorra.- Beste Hezkuntza Premiak/zehaztu gabe. <p>Helburua: adibidez: gelakideak jotzeari uztea</p> <p>Esku-hartze proposamena:</p> <ul style="list-style-type: none">- Erabilitako teknikak:- Tresnak:- Metodologia:- Saio kopurua:- Landutako edukiak: <p>Helburu eta edukien lorpen maila:</p> <p>Hobetzeko esparruak:</p>